

2009ko ekainaren 11 • XXIX. urtea
www.ttipi.net



**Besaulkiak tradizio-
nalki berritzen**

03

Cecile Ayez Xaxik besaulkiak tradizio-
nalki berritzen ditu Gantxe-
berria Sarako bere etxean. Ber-
ritzeaz gain, berriak egin eta ehu-
nak ere saltzen ditu.



**Emakume aizkolarien
tokia aldarrikatuz**

52

Euskal Herrian aizkora eskuan dabil-
tzan hiru emakumeetako bat da Mai-
ka Ariztegi iturendarra. Gutti dira, eta
emakume gehiago animatuko bali-
ra, poztuko litzatekeela aitortu digu.



04

Goizuetako Umore Ona peñak 50 urte beteko ditu aurten

16 LAGUNEKIN HASI ZENA 250 BAZKIDEKO ELKARTEA DA ORAIN

Obsequio de la Peña Umorona d...
simbatza Peña Umorona d...



 **ORDOKI**
altzariak

ERAKUSKETA:
Bittiria 26
SALTOKIA:
Plaza Zaharra 27
LESAKA
Tel. 948 63 77 80



KONTXA

Gasolindegia

- ✓ Deitu eta egun berean edo biharamunean etxera eramanen dugu
- ✓ Garraio-enpresetan depositoak jartzen ditugu

KONTXA

kafetegia

- ✓ Bokadiloak eta Platerak
- ✓ Ogi egin berria



Ongi pasa bestak!

Tel: 948 450 272 · Faxe: 948 450 810 · DONEZTEBE

DATUAK...

- Landeetako Mont de Marsanen egin zituen ikasketak Cecile Ayez Xaxi 30 urteko saratarrak. Gerora, urte aunitzez enpresa batean aritu zen lanean eta orain, bere gisara besaulkiak tradizionalki berritzen hasi da.
- Bere etxea, Gantxeberrria, du lantoki eta besaulkiak berritzeaz gain, berriak egin eta kalitateko ehunak ere saltzen ditu.
- Besaulki bakoitzak bere denbora behar duen arren, prozesua luzea dela aitortu digu. Dena eskuz egiten du.



Gecile AYEZ Xaxi Sarako eskulangilea

ARGAZKIA: X. HARRIAGUE

«Lehiakortasuna badago baina momentuz bada denentzat lana»

Xan HARRIAGUE

Noiz eta nola hasi zinen besaulkiak tradizionalki berritzen?

Duela 10-11 urte hasi nintzen. Eskulan bat egin nahi nuen eta horretan hasteko aukera izan nuen. Zergatik tradizionala? Batez ere gehiago erakartzen nauelako. Gero horretara zuzendu nintzen, nahi gabe neurri batean. Paperez-tatzaile izan nahi nuen galdetu zidaten. Orduan nik ez nuen lanbidea ezagutzen ere. Uste nuen paretetan papera jartzea zela. Hasteko hiru hilabeteko ikastaro bat egin nuen lanbidea ezagutzeko eta ondotik hiru urte pasa ditut ikasten. Gero lana atzeman nuen. **Zein da zure lana?**

Besaulkiak berritzen ditut. Zurezko egitura batetik abiatuta bere osotasunean: barnekoa, behekoa, bizkarrekoa eta ehunak. Eta tradizionalki denez, erresortak edo malgukiak, animalien eta landareetatik ateratako ileak erabiltzen ditut. Lan guztia eskuz egina da, tresna bakan batzuen laguntzarekin. **Zein da berri duzun besaulkirik ederrena?**

Oso politak egin izan ditut, Louis XV.aren modelokoak. Gazteluetako besaulkiak

«Bakarrik ari eta nahi dudan bezala lan egiteko gogoia sentituen eta nire ibilbide profesionalen beste urrats bat emateko tenorea ailegatu zitzaidan»

ematen zuten, handiak eta zabalak. Haiek desegitean 1870eko egunkari batzuk aurkitu nituen eta horrek hunkitu egin ninduen, XIX. mendeaz geroztik ez zuela nehork ukitu jakiteak zerbait piztu zuen nire baitan.

Zergatik erabaki zenuen autonomo gisa hastea?

Bakarrik ari eta nahi dudan bezala lan egiteko gogoia sentituen eta nire ibilbide profesionalen beste urrats bat emateko tenorea ailegatu zitzaidan. Gainera etxean aritzea luxu bat da.

Administrazioaren aldetik errazal al da norbere enpresa muntatzea?

Frantzian izigarri zaila da. Nazkagarria, luzea, paperak alde guztietatik.

Laguntzak izan dituzu?

Bultza elkarteak mailegu bat eman dit zeroko tasarekin. Iparraldeko barneal-

dean enpresa txikiak sortzeko laguntzak ematen dituzte eta Sara horren barne dago. Eta ASSEDIcetatik langabezia beste 11 hilabetez hunkitzeko eskubidea nuen eta horren erdia eman didate hasi naizenean.

Nola dago merkatua?

Bezera gehienak pertsona arruntak dira, partikularrak %90ean, ongi bizi den jendea, aitortu behar baita diru pixka bat behar dela. Horrelako lanak ez dira beste eskulanak bezala. Denbora behar da eta horrek eragina du prezioan.

Lehiakortasun handia dago?

Ez du ematen baina Iparraldean bagira andana. Batzuek aparrarekin lan egiten dute, *mousse* delakoarekin. Nik hori ez dut onartzen, tradizionalki baizik ez baitut egiten. Lehiakortasuna badago, baina momentuz bada denentzat lana.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Nik uste, gisa horretarako lanek segituko dutela, gurean behintzat, sos pixka bat gelditzen delako. Baina onartu behar da gero eta gutxiago dela eta jendeak gero eta kasu gehiago egin eta zaintzen duela moltxa. Herritar guztiek ezin dute eskulana ordaindu nahiz eta politik eta aberatsak direla pentsatu.



Umore Ona peñak 16 laguneko talde honekin hasi zuen ibilbidea.

UTZITAKO ARGAZKIA

AMABIRJINAK ALAITZEKO HELBURUAREKIN SORTU ZEN

Goizuetako Umore Ona peñak 50. urte beteko ditu aurten

Pedro Mari Aizkorbe Goizuetako semea zenarekin hasi zen dena. Iruñean bititu zen urte batzuez eta Sanferminetako peña bateko kidea izan zen. Urte batzuk pasata Goizuetara itzuli zen, eta Iruñean bezala, Goizuetan ere peña bat sortzea proposatu zuen. Esan eta egin. 1959an hasitako eginahalak 1960eko Amabirjinetan ikusi zuen argia. Orduan atera baitzen lehenbiziko aldiz Umore Ona peña kalera. Aurten, beraz, 50. aldía izanen du eta berezia izatea nahi dute. Hortik dator joan den igandean Umore Ona abesbatzak, eta Ereñozuko Ozenki eta Doneztebeko Mendik eskaini zuten kontzertua. 50 urteko ibilbidea laburtuko duen argazki erakusketa ere prestatzen hasiak dira eta abuzturako prest eduki nahi dute. Egun haundia, halere, Peñaren Eguna izanen da. Peñaren eta hortik sortu zen izen bereko elkartearen berri izateko Umore Onarekin harreman estua duten hiru lagunekin egon gara: Joxe Anton Elizegi sortzailetako bat; Juan Antonio Lekuona elkarteko lehendakari ohia eta Ibon Elizegi egungo lehendakaria.

ttipi-ttapa

«Festak alaitzeko helburuarekin 16 lagun hasi ginen eta tartean gu, lau anai. Lau anaietako bat akordeoilaria zen, Luis Elizegi, eta bazen beste bat ere, Juan Mari Zabaleta. Hortik aparte, bonboa, platilloak, tanborra... erosi genituen. Bestirik ez genuen hasieran, baina arrakasta haundi izan zuen». Horrela oroitzen da Joxe Anton Elizegi 1960ko Amabirjin haie-taz. Geroztik, Umore Ona peñak dituen 50 urteotan, hutsik egin gabe hortxe at-era da, eta aurten ere, 76 urterekin, hala-xe egin nahi du. Hasieran 16 laguneko kuadrilla zena denborarekin haunditzen joan zen. «1967 aldera 43 lagun elkartu ginen», azaldu digu Joxe Antonek. Bitxikeria gisa hileko kuota ere altxatuz joan zela esan digu: «lehen bi urteetan 10 pezetakoa zen, gero 25ekoa eta kanpo-tik musikariak ekartzen hasi ginenean».

J. A. ELIZEGI*Peñaren sortzaileetakoa*

«Festak alaitzeko helburuarekin 16 lagun hasi ginen eta arrakasta izan zuen»

J. A. LEKUONA*Elkarteko lehendakari ohia*

«1970etik aurrera peña beste ekintzetan sartu zen, beste kultura bat sortu zen»

Ibon ELIZEGI*Elkarteko lehendakaria*

«Goizuetako herriak orain arte bezala segitzen badu, elkarteak badu etorkizuna»

500 pezetakoa. Dena gure sakeletik ordaintzen genuen».

Goizuetako gazte gehien erreferente izan da Umore Ona peña. «*Nik us-te Goizuetako gazte gehienak hortik pasatu garela*», azaldu digu Lekuonak. Txikitako garaia ere gogoan ditu: «*umeak ginela, kalez kale ibiltzen ziren, herriko txaranga bat zen eta poza ematen zuen. Adina ailegatutakoan gure helburua hor sartzea zen eta ni 16-17 urterekin sartu nintzen*». Gazteagoa da Ibon, baina hau ere iritzi berekoa: «*Goizaldean txarangaren soinuarekin esnatzen nintzen, eta hura ikustera ateratzen nintzen. Oroitzapen berezia dut*».

Goizuetar gutxi ulertuko lituzke Amabirjinak peñarik gabe. Hasiera batean festak alaitzeko txaranga zena bere tokia eginez joan zen, eta herriko festak antolatzeko ardura hartu zuen denborarekin: «*1970era arte helburua, besterik gabe, festak alaitzea zen. Baina hortik aurrera, peña beste ekintza batzuetan sartu zen eta Udalari festak antolatzeko laguntzen hasi zen, beste kultura bat sortu zen*», dio Lekuonak. Pilota partidak, bertsolariak, harri-jasotzaileak, dantza saioak, as-to karrerak, krosa, mus txapelketa, plater tiroketa... horien ardura hartu zuen peñak. «*Urte batzuetan, zortzi eguneko festak ere izan genituen*». Udalak egun ofizialeko –aurreneko lau egunak– gastuak ordaintzen zituen eta gainerakoa peñaren esku izaten zen. Hori bai, ez zen orain bezalakoa: «*lehen goizaldeko 4:00ak aldera bukatzen ziren festak, baina egunez gauza gehiago izaten zen*».

Horrela iraun zuen 1984. urtera arte. Umore Ona Elkarteak sortu zen arte, alegia. «*Ekitaldi guztiak elkarerik gabe antolatzen ziren, taberna batean edo eskolan bilduta. Formalidade eta konpromiso gehiago hartzeko zerbaiten beharra ikusi zen, elkarte baten sistemara egokitze-*

INDARTZEN ARI DEN ELKARTEA

Mugimendu handia ekarri zuen Umore Ona Elkarteak herrira eta 25 urte beranduago bide beretik segitzen du. Are gehiago, indartuz doa. Adar asko dituen elkarteak da: pilota eskola, dantza taldea, futbito taldea, abesbatza... Feria antolatzeaz ere bera arduratzen da: «*Urtean egiten diren ekitaldi gehienetan esku hartzen dugu, pertsona eta dirulaguntza emanez*», dio oraingo lehendakariak. Gaur egun 249 bazkide

ditu eta elkarteak txiki gelditu zaie. Haunditzea ere pasatu omen zaie burutik juntakoei. Diru iturri nagusia, berriz, Amabirjinetan paratu ohi duten Ikastolako Taberna, Udalaren subentzioa, bazkideen urteko kuota eta asteburuetan ibiltzen den jendeak utzitakoa dituzte. Badu etorkizuna elkarteak, Ibonek erran bezala, «*Goizuetako herriak orain arte bezala segitzen badu, behintzat, bai*». Ez dadila aldatu, beraz, Goizueta.



UTZITAKO ARGAZKIA

Urteekin indartzuz joan zen Umore Ona peña, eta sortu zenetik 16 urtera, 1976an kuadrilla ederrak osatzen zuen peña.

ko beharra», dio Juan Antoniok. Eta halaxe izan zen. Araudia zehaztu eta Udalak lokala eskaini zien. «*Bazkide bakoitzak 60.000 pezeta bota genituen obra egiteko*», gogoratu du Joxe Antonek. Obra egin eta hortxe segitzen dute. Peñaren egitekoa, berriz, Peñaren Egunera mugatu da gaur egun.

Blusa berdea, zapi eta gerriko gorria eta galtza zuriak. Hori da Goizuetako peñaren jantzia. Halere, bai Elizegitarrek eta bai Lekuonak, guztiak bat egin dute peña-

ren indarra ez dela lehengoa esaterakoan: «*lehen festak hasi eta bukatu arte ez zen blusarik kentzen; orain gauzak aldatu dira*», dio Juan Antoniok. Eta Ibonek, berriz, «*gaurko gazteek ez dutela lehengoa bezala bizi peñaren kontua*». Urteekin galduz joan den ohitura indartu egin nahi dute, eta beharbada aurten da tenorea, 50 urte ez baitira egunero betetzen. Kontuan hartzekoa, halaber, 50 urte hauen historia bilduz, Lekuonak argitaratuko duen liburuxka.

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leizeta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2009ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	36 €
Espainia	36 €
Ipar Euskal Herria	54 €
Europa	54 €
Amerika eta Australia	120 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leizeta	30 €



Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euskarabidearen laguntza jaso du



• IRAKURLEAK MINTZO •

Elizondar baten eskutitza Javier Caballerorentzat

25.659 herritar artatzeko komisaria ez da 25.659 biztanle dituen herri batean eraikiko, elkarbizitza eta tradizio arazoak eta loturak dituen herri haundi batean, herri haundi bateko auzotar batzuen mentalitatearekin. Aitzitik, Elizondo bezalako herri batean egin nahi da, 3.200 biztanle erroldatu eta Elizondori dagozkion lotura eta elkarbizitza arazoak dituen mentalitate elizondarra duen herri batean. Eta baztandarren mentalitatea (8.089 herritar) ere kontuan hartu behar da, polizia eta guardia zibila-ren portzentajea arras altua delako.

Hanka sartzeko beldurrik gabe, erran genezake, 3.200 herritarrok ez dugula 25.659 lagunentzako komisariarik eraikitze eskatu. Hau Nafarroako Gobernuak erabaki eta eskatu du (Nafarroa 2012 Plana: lehentasunezko 90 proiektu). Nire ustez, komisaria '16. poligonoko 749 partzelan' eginen balitz, ez litzateke auzo moderno eta Baztango haurrik gehienak biltzen diren auzoko komisaria izanen, «komisariaren auzoa» bihurtuko litzateke: horrek inguruko harreman eta elkarbizitza baldintzatuko luke. Caballero jauna, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: herritarrengan-

dik hurbilagoa egon eta zuzenagoa izanen den zerbitzu bat izanen dela errateak ez digu sobera balio. Edozein kasutan, Elizondoko 3.200 herritarrentzako zerbitzu zuzena izanen litzateke, baina, eta Lantzekoentzat? Eta Goizuetakoentzat? Eta Berakoentzat? Eta Ezkurrakoentzat? Horri deitzen diozu zuk atentzio zuzena? Ikus dezakezunez arrazoi hori nahiko eztabaidagarria da.

Gainera, komisaria haundi baten kokapena auzotarrek 30 urte baino gehiagotan (hori konta dezakeenak; batzuk adinean aitzinerago joanak gara) sentituko dutena ezagutu eta inporta izan gabe erabakitzen bada, hau da, auzotarrei informaziorik eman gabe, aitzinetik guttieneko inkestarik egin gabe edo inguruan iritziaren azterketarik egin gabe, kasu honetan auzotarren artean piztu diren sentimenduak eragiteko arriskua dago: inpotentzia, dezeptzioa, tristura, engainua, izugarritzako mesfidantza gure udal ordezkarietara, eta neurri batean irainaren sentimendua ere bai. Hau zen lortu nahi zena? Berehalako eta behartutako manifestazio bat egitera bultzatzea? Alkatearen eta bere Udal Gobernu Taldearen jardunaren inguruan kritika eta salaketa zabaltzea zen kontua?

Baztandar aunitzenguz nagusikeriaz jokatu du, gardentasunik gabe, auzotarrek kontua gehiegi zabal ez dezaten kontu haundiz, hau da, bizkarrare emateko trebetasun haundiarekin, proiektu eta erabakien prozesutik gutiz baztertera gelditzeke. Caballero jauna, ez ditugu alkatea eta bere Udal

Gobernu Taldea –honek ere gaizki interpretatu baitu auzotarren erreakzioa– errudun bihurtu nahi. Nafarroako Gobernuak gaia berriz planteatzea da nahi duguna.

Javier Quintano Elizondo

Zumalabe piezaren absolutzioak ez du konpon-tzen 18/98-rekin egin den bidegabekeria

Oraindik Auzitegi Gorenaren epaitza jakin gabe, baina gure absolutzioaren berri badugula, Joxemi Zumalabe ko absolutuok honako iritziak plazaratu nahi ditugu:

•Lehenik eta behin, gure maitasun eta elkartasun beroena helarazi nahi diegu Estatu Espainoleko kartzelatan preso eta sakabanatuta dituzten «18/98 sumarioko» kideei. Aipamen berezia egin nahi diegu piezako kide eta lagun Carlor Trenorri.

•Joxemi Zumalabe piezako kideon (eta Natalie Landaren) absolutzioak ez du inondik inora zuzentzen gurekin eta, oro har, 18/98ko prozesatuekin egin den bidegabekeria. Ez du inola ere arintzen Auzitegi Nazionalak irekita dauzkan sumario politiko guztien izugarrikeria. Ez, inola ere ez. Soilik 18/98ko testuingurura mugatuta, 40 pertsona daude une honetan kartzelatan, zergatik eta, armarik edo bestelako indarkeriarik erabili gabe, beren ideia politikoei eutsi eta praktikara erama-

teagatik Eta beste ehunka pertsona daude kartzelara joateko mehatxupean, Estatuak nabarmen erabiltzen du-eta indarkeria juridikoa bere helburu politikoak lortzeko.

•Zeinek ordainduko du hamar urteotan egindako kalteengatik, gure eskubideen zapalkuntzagatik? Eta gure familiei, lagunei eta ingurukoiei eragindako kezka eta sufrimenduagatik? Nork ordainduko du gure lan-arazo eta xahutze ekonomikoarengatik? Nork, nola, noiz, zer erantzungo zaie oraindik kartzelatan dauden pertsonen? Noiz amaituko da Estatuaren inpunitatea? Noiz arte herri honetako disidentzia sozial eta politikoa erreprimitzeko zigorgabetasuna?

•18/98 makro-sumario honetan hamar urte luzez erabili du indarkeria Estatuak: salaketa funsgabeak, atxiloketak, torturak, behin-behineko espetxealdiak, eskubideurraketak, ia bi urteko ahozko ikustaldia, berriz ere atxiloketak, berriz ere kartzelatzeak, sakabanaketa... Estatuak modu krudean erabili du indarkeria. Orain, prozesu juridikoaren amaieran, fidantzapeko askatasunean zeuden zortzi kide kartzelatu dituzte, berriz ere gure duintasuna mesprexatuz. Pertsona horiek atxilotzera, Auzitegi Gorenaren epaitza ezagutu aurretik bidali du Guardia Zibila Auzitegi Nazionalak, nahiz eta kontrolatuta zeuden zaintzapeko «askatasunean». Jose Luis Elkoro, Juan Pablo Dieguez, Javier Salutregi, Iñaki Zapiain, Xabier Otero, Elena Beloki, Inma Berriozabal eta Juan Mari Mendizabalen kasuan, jokatibide oldarkor hori justifi-

● IRAKURLEAK MINTZO ●

katzeko alarma soziala edo ihes egiteko arrazoiak ardiatzea zentzugabea da.

• Joxemi Zumalabe Fundazioaren eta mugimendu sozial eta politikoen kriminalizazioa eta desobediencia zibilarren jazarpen penala bederatzirteotan erabilitako arma politikoa izan da, euskal jendaratearen sektore garrantzitsuak beldurtzeko eta desmobilizatzeko xedez. Kartzelatzerira iritsi gabe ere, Estatuak disidentziaren aurka egin dezake. Aski du kriminalizatzearekin, jazarztearekin, elkartzeko, antolatzeko edo, esate baterako, komunikabide propioak martxan jartzeko beldurra sorraraztearekin. Aski du, azken batean, jendea autodefentsan lan egitera behartzearekin, aldaketa sozial eta politikorako bestelako ahalegin sortzaileetatik aldentuz. Euskal jendarte desmobilizatu eta otzana nahi da: jendarte hila.

• Urte hauetan jasotako elkartasuna eskertu nahi dugu. Ez dugu inoiz ahaztuko lankideon hurbiltasuna, ehunka pertsona autointulpatuen konpromisoa, Fundazioaren lana babestu duten mota guztietako talde sozialen engeiamendua, hainbat mobilizaziotan parte hartu duten milaka eta milaka pertsonak, 18/98+ plataformari bultzada eman diotenak... Bihotz-bihotzez eskertzen dugu jaso dugun elkartasuna eta babesa. Eta horren aurrean konpromisoa hartzen dugu lanean jarraitzeko, Fundazioaren barrutik edo kanpotik, Euskal Herri libreago eta justuago baten alde.

Olatz Altuna, Mikel Aznar, Alberto Frías, Fernando Olalde, Sabino Ormazabal, Iñaki O'shea eta Mario Zubiaga.

Leitzako Guraso Elkarte Katolikoaren oharra

Izugarrizko arazoa dugu Leitzako Guraso Elkarte Katolikoko sozioek. Zortzi urte daramazkigu Zuzendaritza Batzordeari gure lokalean gauzak aldatzeko eskatzen, baina ez dugu deus ere lortu. Sei lagun daude eta beraiek nahi dutena bakarrik egiten dute. Ezin dugu paperekin botatu, beti eskua jasota eta errotatu gabe. Beraiek nahi dutenak bakarrik jartzen dira Juntan lan egiten.

250 inguru bazkide gaudela baina inork ezin ditugu gure lokal horiek erabili, zati bat erretiratu utzia diegulako eta beste pusketak bat gaztetxoei. Baina hemen dator okerrera: sukaldia, jangela, komunak eta lehenago taberna haundi batzuegoen leku guzira errentan emana dago eta guretzat ateak itxita daude. Estatutuak esaten duenez, eta abokatuak ere bai, legez kanpoko da da, baina ez zaie axola.

Horregatik, **Ttipi-Ttapa** irakurtzen dugun guzirik Leitzako herrian nola gauden jakitea nahi dugu Leitzako Guraso Elkarte Katolikoko bazkideok. Herriaren alde lan egin beharrez, beste herri guzietan bezala, Leitzan gure gurasoen lokaletan Oialde elkarte gastronomiko eta kulturala daukagu. Izena ere ez du nolana hiko. Orain dela hiru urte eta hiru hilabete eman zen errentan, bazkideekin asanblada bat egin gabe. Kontrato hau sinatu zuen pertsona kontratoaren hirugarren puntuan zera jarri zuen: «errenta hilabeteko lehen eta bosgarren egunen artean ordainduko da,

nagusi maizterrek zehazten duen tokian». Baina kontua da, lokal horietatik ezin dela dirurik kobratu. Uste dut honekin dena esanda dagoea, eta argi gelditzen da bazkideok zer pintatzen dugu gure lokaletan.

Azkenik, adierazi nahi dugu ez dugula atsedetik hartuko gure lokala berreskuratu arte eta honen ondoren, berrikerik ez badugu, lruñean solastuko dugu.

**Flory Mitxelena
Leitzako Guraso
Elkarte Katolikoa**

Baztango hiltzaria, aski da!

Badira 12 urte Baztango hiltzaria ireki zenetik, egitasmo zehatzik gabe eta hasierako indefinizio eta inertzien ondorioz herritarrendako zerbitzu publiko bat poliki hiltzera utzi. 12 urteren ondotik egoera ez da gehiago jasaten ahal, horregatik, zirt edo zart egiteko tenorea ailegatu da. Hiltzaria irekitzerakoan Europatik hiltzaria itxitzeko legea ailegatu zela kontuan hartu behar da, eta horrela, eskualdean zeuden hiltzaria itxi eta Baztango Loizu hiltzaria ireki zen.

Hasierako planteamendu eskasaren ondorioz, hiltzaria haziendak hiltzeko bertzerik ez zen diseinatu, puskatzeko zerbitzurik gabe. Gainera aratze/behiak eta ardi/bildotsak hiltzeko lineak jarri baziren ere, zerriak hiltzeko linearik ez zen jarri. Aintzinekua gutti ez, eta hiltzaria sanitaterako arauak bete gabe ireki zuten: odola egosteko sistema, ur zikinak bereizteko... Halaber, eraikuntzaren kalitate eskasa aipatu behar da: zo-

la aratzeen atzaparrekin zulatzen zen, paretak ahalak eta hauskorak ziren... Geroztik hiltzaria beti itxitzeko puntuan egon da, eta Udaletxeak egin dituen inbertsioak zuloak tapatzeko petatuak bertzerik ez dira izan.

Nolanahi ere, hiltzaria egin eta Udaletxea haren jostioaz atzendu zen. Horrela hiru langileren artean autonomo modura hartu genuen, baina hiltzaria errentan hartzeaz gain, mantenuaren eta lana biltzearen lana osorik gure gain utzi zuten. Horrela ez zitekeela segi eta kontratua akitu baino lehenago hiltzaria uztea erabaki genuen. Azkenean, gora-behera batzuen ondotik Baztandarra Kooperatibak hiltzaria jostioa bere gain hartu zuen, eta guk autonomo gisa lanean jarraitu genuen, ahozko kontratu batekin. Pentsa!

Baztandarra Kooperatibak hasieran "Baztangoa" markaren inguruan zerbait egiteko gogo bazuen ere, azkenean ez da deus aintzinatatu, eta lehengo arazoak bere horretan jarraitzen dute. Hala ere, egoera bihurri honetan hiltzaria potentzialitate zentzuzkoak izaten ahal den ikusi dugu, zeren nahiz eta puskatzeko prestatuak ez egon nere aldetik zerbitzu hau ehunda baserriar eta herritarrei eskaini diot, legeek, erakundeek eta gure mugek aski errazteraz bulkatu didaten arte.

Egoera ez da gehiago jasaten ahal, laneko giroa eta baldintzak gaiztotzen ari dira; Udalaren aldetik ez dago apustu garbirik, Kooperatibak ez daki zer nahi duen... Eta inork ez badu deus egiten, azkenean itxiko da. Baina erran dudana moduan, hiltzaria animaleko potentzialitatea du, baldin eta zerbitzu pu-

bliko baten gisara pentsatzen bada; baldin eta Udaletxeak eta Kooperatibak horretan sinesten badute, eta dudarik gabe, baldin eta baserriar, herritar, nekazal sindikatu eta harikonek bat egiten badugu. Beharrezkoa da hiltzaria buruzko eztabaida bulkatzea eta horren arabera erabaki hartze prozesu serioa hastea. Hiltzaria zerbitzu publiko bat izan behar du, eta lehen sektorea bulkatzen laguntzeko azpiegitura estrategikoa. Orain edo inoiz ez.

**Isaak Rekalde
Hiltzaria langilea**

Antzinako Tren Txikitoren bertze bidea

Apirilean kaleratutako alean, Tren Txikitoren bideari buruz idatzi zen, Bide Berdea dela eta ez dela esaten zen, eta ados nago gehiengoak nahi ez bada hala izatea. 1978an Lau Herrietako Juntari mendirako pasabidea uzteko baimena eman zitzaion bidea egoera onean mantentzeko baldintzarekin, eta hemen dator nire kexa, hori ez delako inola ere betetzen. Sunbilletatik igantzirako bidea har ezazue eta hormigoia akitzen denean, itxuraz abandonatua dagoen bidea batean sartzen gara. Hor Lau Herrietako Juntak ez du ezer ere egiten, bizilagunak gara gure denbora eta diruaz ahal dugu moduan mantentzen dugunak. Beraz, ni ere 40 familia horietako bat naiz eta akordio hori betetzen ez dela salatu nahi dut, eta egiaztatzeraz gonbidatzen zaitzuten.

**Mikel Sagarzazu
Sunbilla**

LANA

Abenduaren 31 arte erregulazioan egonen dira Condesako langile guztiak

Langileei aitzineko astean jakinarazten zaie hurrengo astean lanera joan behar duten ala ez

ttipi-ttapa

Maiatzaren 25az geroztik Condesako 310 langileak erregulazioan daude, eta hala egonen dira urtea bukatu arte, abenduaren 31 arte. Ez da hasiera batean zuzendaritzak nahi zuen EREa, baina bai langileen artean kezka eragiteko nahikoa. Hasieran, enpresak langile guztiei diferente eraginen liekeen EREa aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuko Lan sailean, 2010eko abenduaren 31 arte iraunen lukeena: 25 langileri 19 hilabete erdirako eten nahi izan zien kontratua; 80ri 14 hilabeterako eta 205 laguni 10 hilabeterako. Baina Lan Sailak ez zuen onartu zuzendaritzaren asmo hori. Horren ordez, maiatzaren 25etik urte honetako abenduaren 31 bitarte langileak erregulazioan uzteko baimena onartu zion.

Baina hori ere ez da begi onez hartu. Langileen arteko berdintasuna izan da sindikatuek eskatu duten baldintze-

tako bat, baina ez dute lortu eta batzuek denboraluzegoan egon beharko dute etxean. «Gehienez ere zazpi hilabetez egonen dira langabezia, batzuk bi hilabetez, bertzeak lau hilabetez...», azaldu digu Jose Luis Bakedano ELAko ordezkariak. Bide beretik, langileen arteko «bereizketak» salatu ditu LABeko Julen Mitxelorenak: «enpresak bere irizpideen arabera egiten du dena, asmoak langileekin konpartitu eta kontrastatu gabe».

Langileen artean ezin negona eta nahasmena da nagusi. Hurrengo astean lanera joan behar duten ala ez, eta lana izatekotan, zein turno tokatuko zaien aitzineko astean jakinarazten zaie, fabrikari paratzen diren zerrenden bitartez. Gainera, langabezia egonda, ez dute osagarririk kobratuko.

Ezkor mintzatu dira sindikatuek. «Zuzendaritzak hasieran nahi zuena baino hobea da, baina Gobernuak arrazoiak



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Condesak Zalainen duen tutu lantegia.

«Enpresak 170 langilerekin funtzionatu nahi du eta hori mehatxu bihurtu da»

LAB sindikatua

onartu dizkie eta erregulazio honen ondotik, arrazoi horiekin bertze bat onartzeko arriskua dago», aipatu digu Bakedanok. «Gerora gogorragoa etorriko dela erraten ari dira», gaineratu du. Balorazioa, beraz, «txarra».

Mitxelorenak enpresaren «gehiagikeriak» kritikatu ditu. Eta galdera bat luzatu du: «hau pasatu eta zer?». Hori xe da, azken batean, kezka eragin duena. «310 langile daude orain, baina enpresak 170ekin funtzionatu nahi du eta hori mehatxu bihurtu da. Mehatxu horrek badu eguna: 2009ko abenduaren 31». Hortik aitzinera, kontratuak bertan behera uzteko arriskua ikusten du LABek.

«Gobernuak arrazoiak onartu ditu eta honen ondotik bertze bat onartzeko arriskua dago»

ELA sindikatua

UGTko Patxi Altxuk ere Zalaingo lantegiaren etorkizuna «beltza» dela nabarmendu du, «triste».

Bere hitzetan, «Lezakan eta Legasan egin den bezala, bideragarritasun planik aurkezten ez bada, abendu ondoretik, edozer gauza gerta daiteke. Deskuidatuz gero, kaleratzeak ere bai».

Hala dio Altxuk.

Guztiaren gibelean dagoena ez dela krisia bakarrik iritzi dio ELAK: «aitzinetik egin zutena dago». 2004an Condesak fabrika erosi zuenez, Zalainen egiten ziren tutu batzuen produkzioa taldeko bertze lantegietara eraman zen, Gasteizera, Iruñera... Zalainen autoentzako tutuak bakarrik egitea erabaki zen. «Agindutako

«Bideragarritasun planik aurkezten ez bada, abendu ondotik edozer gerta daiteke»

UGT sindikatua

«makina segituan kendu zituzten, baina paratu beharreko guztiak ez dituzte paratu. Eta orain diote ez direla behar. Baina hori ez da gure errua», dio Bakedanok. «Orain gauzak gaizki doazean, dirua bideratu behar denean, Zalainek berak bakarrik atera behar duela aitzinera dio. Ez da hori kontua, taldean hartu diren erabakiak ikusi behar dira».

Egoera zein den ikusita, ez dute geldirik egoteko asmorik. Hori baieztatu digu LABek, eta zuzen eta tinko beteko duen bideragarritasun plana exijitu dio zuzendaritzari. Langileei, berriz, batasunerako deia egin die, Mitxelorenaren hitzetan, «etsaia ez delako ondokoa, enpresa baizik».

ANTZUZELA J.L.
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Fax: 631 587
Itungo errep. BERA
www.antzuzela.com
info@antzuzela.com

Aintzinaideak, angeluak, orna aintzinaok, leihoak, ateak, arkuak, plareak, tuminiak, enfiak, moldurak, zokaloak, hilaikiak, marmazkiak

carne
guztiak onak

1.948 631 317
www.carne.net



BEOLA-ETXEA

/ supermerkatua / bar / jatebxea /
/ lurrindenda / moda /

JANTZIEN ESKAINTZA

4x3

* jantzirik merkeena dohainik
2009 - 06 - 30 arte

Ibardin gaina, 30
31780 Bera - Nafarroa
Tel. (0034) 948 630 709
Fax. (0034) 948 631 051
www.beolaetxea.com



*Forizkun
Erratzu eta
Doneztebeko
bestak 2009*



**DONEZTEBEKO
BESTAK 2009**

Ekainaren 20tik 30era

Doneztebeko Udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei



BAZTANDARRA KOOPERATIBA
Baserritarren zerbitzurat
Tel: 948 453310 - 948 453375 • Faxa: 948 456201
Ordoki Auzoa - ARIZKUN

Dutarimuno
Ekologikoki ekolizaturako arrotzak
Ongi pasa berriko bestak!!
Dutaria baserria - ARIZKUN - Tfnoa: 616 756 359

BERRO-BIDE
Nekazaritza eta industria
trusua konponketa, salmenta
eta elokazioa
Tel: 948 453 425
Ordoki - ARIZKUN

JOSE LUIS ITURBIDE IRISARRI
LJADOS Y BARNIZADOS
CL. TXIMINDO, 48 A - 2 C
31713 ARIZKUN
NAVARRA
TELF. 948 45 30 08
TELF. MOVE. 696 35 74 96

JALRENA
Luzimena • Espetxak
Telefonoak:
948 453 451
819 814 048
Ordoki Ind. • ARIZKUN

DOLAETXEA
ostatua
Bestak ongi pasa!
Tfnoa: 948 453002
ARIZKUN

BAZTANGOIZA
Auto, kamioi eta nekazaritzako makineriaren
konponketa eta salmenta
ongi pasa bestak!
Ordoki 31713 Arizkun-BAZTAN (Nafarroa)
Tf. 948 453 493

Arizkungo bestak

ekainak 19 ORTZILERIA besten hasmenta

12:00 DIANAK, TXUPINAZOA eta "GAZTEEN LUNTXE". 13:00 TXOPO GORATZIA. 14:00 Txopo goratzaileendako BAZKARIE. 21:30 BAZTANZOPAK, AGERRALDEK alaiturik. 23:30 Kontzertuek: KOMANDO KASTAÑA, BRIGADA IMPRODUCTIVA, TALDE SORPRESA. 02:00 Dantzaldia AGERRALDEekin. 05:00 ZITZOR JATIA.

ekainak 20 LARUNBATA haurren egune

10:00 DIANAK. 11:00 Haurrendako PUZGARRIEK eta KARS-ak. 14:00 Haurrendako BAZKARIE. 17:00 PLATER TIRAKETA lokala Bagordin. 17:30 HAURRENDAKO TAILERRA. 18:00 TXOKOLATADA. 20:00-21:30 Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin. 21:30 MUTILDANTZAK eta GAITA. 0:30 Gaupasa TRIKIDANTZ taldearekin. 5:30 ZINGER JATIA.

ekainak 21 IGENDIA

10:00 DIANAK. 17:00 ZANKAIDEAK. Ondotik Kantaldia BANKARRA eta ASTE-AZKENEKOAK. 21:30 MUTILDANTZA eta GAITA. 0:00 Gaupasa AGERRALDEekin.

ekainak 23 ASTEARTIA san juan bezpera eta zikiro egune

10:00 DIANAK. 12:00 MUS INEZTURE. 14:00 ZIKIRO JATEA. Ondotik HERRI POTEOA JAIK txarangarekin. Ilunabarrian SAN JUAN SUEK eta Ezkil jotzea. Ondotik ANTZERKIE. 22:00 MUTILDANTZAK eta GAITA. 0:00 Dantzaldia KIKI BORDATXO taldearekin.



ekainak 24 ASTEAZKENA san juan egune eta karriken bizker besta

10:00 DIANAK. 11:00 MEZA NAUSIE. 12:00 MUTILDANTZAK, SOKADANTZA eta HERRIKO LUNTXE. 17:00 PILOTA PARTIDA, eskuz banakako finala. 18:00 TORTILLA PATATA LEHIAKETA. 19:00 BERTSO POTEOA. 20:00 Dantzaldia AGERRALDEekin. 21:30 MUTILDANTZA eta GAITA. 0:00 Dantzaldia AGERRALDEekin. Ondotik "GAIXOA NI" eta TXOPO BOTATZIA.



Erratzuko bestak

ekainak **26** ORTZILERIA

20:00 TXUPINAZOA eta EZKIL JOTZEA. **20:30** Errepresaliatuen aldeko KON-TZENTRAZIOA Plazan. **21:00** BAZTAN ZOPAK Kastonean. **0:30** Dantzaldia SAIOA eta ALAITZekin.

ekainak **27** ORTZILERIA
haurren eguna

10:00 ARGİ SOINUEK. **11:00** HAUR JOLASAK. **13:00** haurren eta gurasoen BAZ-KARIA Kastonean. **14:00** ERREPRESALIATUEN ALDEKO BAZKARIA Elkartean. **15:30** HAUR JOLASAK. **18:00** Bertso poteoa BIZKARGAIN fanfarreak alaiturik. Bertsolariak: INIGO IZAGIRRE, INIGO MANTZISIDOR "MANTXI", JULEN ZU-LAIKA eta JON BARBERENA. **20:00** Dantzaldia GARRAXI taldearekin. **21:30** Mutildantzak, gaita, Larraindantza. **22:00** Rock kontzertua: EL TRONO DE JU-DAS, ZOLDA, TALDE SORPRESA. **01:00** Dantzaldia GARRAXI taldearekin.

ekainak **28** IGANDEA

10:00 ARGİ SOINUEK. **13:00** Kantaldia elizan: GAZTELU. **17:30** PILOTA PARTI-DAK Etxelebert pilotalekuan. Afizionatuek: BARBERENA-HUARTE/OTXAN-DORENA-BARBERENA II. Profesionalak: MIKEL GONI-MERINO/LARRALDE-ARRUTI. **20:00** Dantzaldia ANGEL MARIrekin. **21:30** MUTILDANTZAK, GAITA eta LARRAIN DANTZA. **22:30** Dantzaldia Iparlan: PANPI PORTUGAL. **0:30** Dan-zaldia ANGEL MARIrekin

ekainak **29** ASTELEHENA
san pedro eguna

10:00 ARGİ SOINUEK. **12:00** Meza. **13:00** MUTILDANTZAK Plazan eta LUNTXA Kastonean. **17:30** HERRITARREN ARTEKO DESAFIOA. **19:30** Mariatxiak Pla-zan: TXUTXIN IBAÑEZ Y LOS CHARROS. **21:30** MUTILDANTZAK, GAITA, eta LARRAINDANTZA. **22:30** SU ARTIFIZIALAK. **23:30** Kontzertua Zubipuntan: AIZ-KOR ERAUNTSIA. **0:30** Dantzaldia ANGEL MARIrekin.

ekainak **30** ASTEARTEA
zikiro eguna

10:00 ARGİ SOINUEK. **11:00** PILOTA PARTIDUAK Gorostapolon. **13:30** ZIN-TZUR BUSTITZEA. **14:30** ZIKIRO JATEA FRANTXISKOK alaiturik. **20:00** Dan-tzaldia: FRANTXISKO. **21:30** MUTILDANTZAK, GAITA, eta LARRAINDANTZA. **0:30** Dantzaldia FRANTXISKOREKIN eta BESTEN AKABAILA.



ALBANTZENEA
Santi Denderrieta OSTATUA-DENEA
Ongi pasa herrira bestak!
Albantzenea etxea, ERRATZU - Tel. 948 453 117

IPARLA
OSTATUA
EGUNERO GOSARIAK
PANPI PORTUGAL ekainaren 28an 22:00ean

ALEMAN ZERRATEGIA, S.L.
• Teilatutako estrukturak, duglas, pinua, haritza
• Tarima
• Portxoak tamaina egokian
• Laminatuak eta KVH (zura zertifikatua)
Frantziako errep. zig • ERRATZU • 948 453 173

Okindegia Jatetxea
Uxoá
OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitateak parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erreka, goxo goxoa!
Ongi pasa herrira bestak!
Ordoki Industrialdea
Tfnua: 948 453 403
31713 ARIZKUN

ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK
Parrilan egindako haragi eta arrainak
Ongi pasa bestak!
T. 948 453 165 • ARIZKUN

Doneztebeko bestak

“Haurrek eta gurasoek ilusio handia izaten dute Udal Tikiaren ekitaldietan parte hartzeko”



Miguel SAN MIGUEL
Doneztebeko alkatea

Doneztebeko San Pedro bestetako egitaraua prest du Herriko Etxeak, baina Miguel San Miguel alkatea aipatu digunez, besten antolaketaz ez da udala bakarrik arduratzen: *“urtarrilean egiten da lehenbiziko bilera eta hor, udalarekin batera, herriko elkarte gehienak biltzen gara, Erreka, Burrunba, futbol taldea, emakume elkarte, ehiztari elkarte... Komisio irekia izaten da. Hasierako bilera horretatik, gero besten antolaketan ariko den taldea ateratzen da eta horri esker, besta herrikoiak prestatzen ditugu, denak gustora uzteko modukoak”*

Krisi garaian murgilduak, besten antolaketak ere diru murrizketa somatuko du, baina halere, ekitaldi beretsuak egin ahal izanen dituzte, *“iaz 50.000 euro inguruko aurrekontua izan genuen-dio alkateak-eta aurten 40.000 eskas izanen dira, kasik 12.000 euroko jautsiera. Joan den urtean bezalaxe, aurten ez ditugu bakillarik izanen, baina murrizketa handi-handirik ez da somatuko egitarauan”*. Hori lortzeko, elkarte eta talde ezberdinen laguntza behar beharrezkoa izan dute. Errate baterako, udalak bestak larunbatean hasteko asmoa zuen, baina Gazte Burrunba elkarteak, ostatuek eta jate txeeek, bere gain hartu dute ortziralako besta egunaren antolaketa. San Miguelek aipatu digunez, *“Baigazteek besta egiteko, bai ostatu-jatetxeek lan egiteko egun ona izaten da ortzirala, eta beraiek antolatu dute txaranga,*



ENGLISH ACADEMY

ITZULPEN LANAK EGITEN DIRA
2009/2010 kurtsorako matrikulazio
epea zabalik, plaza mugatuak

ONGI PASA BESTAKI

Elizagibela, 7 behea • 31740 SANTESTEBAN
Tfno: 626 908 078 • angieacademy@hotmail.com

Ongi pasa
herriko
bestetan!

MARTXARIK ONENA

Pintxoetan espezializatuak - Bokadilloak

Parrokia 3 • ☎ 948 450318 • DONEZTEBE

maria ilospaindegia

ongi pasa
bestak!

DONEZTEBE • T. 948 450 922

Pedro J. Martin
Azienda tratularia

Ongi pasa herriko bestak !!

948 450 042
Martinienea etxea • DONEZTEBE



Trapatán dantza berreskuratu zenetik, urtero urtero dantzaten da San Pedro egunean.

zopak, dantzaldia Jaliskorekin... Larunbatetik astearterakoa, berriz, gure gain joanen da".

Batekin eta bertzearekin, egitaraua ederki osatu dela uste du alkateak. Kirola maite dutenentzat **"Nafarroako bigarren mailako aizkora txapelketaren kanporaketa ekarri dugu larunbatean eta astelehenean, erremontea izanen da, Doneztebeko eskolakoekin, baita profesionalekin ere"**. Aizkora kanporaketan hamalau aizkolari ariko dira: Luis Mari Belarra eta Juan Telletxea doneztebarrekin batera, Beintza-Labaiengo Jesus Etxeberria, Xabier Mindegia eta Jon Telletxea, Etxalarko Xabier Ariztegi, Leitzako Arkaitz Olano eta Jon Rekondo, Berako Oihan Larretxea, Zubietako Patxi Mindegia eta Juan Jose Erdozia (Etxarri Aranaz), David Amillano (Altsasu), Sergio Mandazen (Garralda) eta Daniel Vicente (Otsagi). Bortz lehenbizikoek finalerako txartela eskuratuko dute eta azkeneko biek maila galduko dute.

Gazteek Burrumba Eguna izanen dute eta hor bere gustoko ekitaldiak izanen dituzte: goizean jokoak, bazkaria, Elektrotuna taldearekin kalejira... Partehartze handiko ekitaldiak izan ohi dira eta gustora izateko moduko egitaraua dute gazteek aurten ere.

Ttikienek ere izanen dute ongi pasatzeko aukera. **"Gorriti hor izanen dugu bere animaliekin larunbatean, -dio San Miguelek- Ttikien egunean, karts eta puzgarriak izanen dituzte,**

erraldoiak eta buruhandiak, txu-txu trena...". Hain zuzen, Ttikien Egunerako osatzen den Udal Ttikia izan ohi da Doneztebeko San Pedro bestetako bereizgarrietako bat eta egun horretarako ilusio berezia izaten dutela uste du Doneztebeko alkateak: **"Ez bakarrik hurrek, gurasoek ere ilusio berezia izaten dute egun horretarako. Eskolako bosgarren eta seigarren mailan egiten da deialdia eta gero izen ematen dutenen artean zozketa egiten da karguak banatzeko. Aurten 23 neska-mutikok eman dute izena eta horrek erakusten du gustatzen zaie gauza dela"**.

Egun horretan, Herriko Etxean nagusiek egin ohi duten lanak egiten dituzte hurrek: alkate, zinegotzi, bake epaile... eta ttikienei handi sentitzea gustatzen zaie. Alkate "handiari" Doneztebeko bestetan gehien gustatzen zaiona galdetutakoan, San Pedro Eguna herritarrentzat eta Donezteben sortu arren, kanpoan bizi direnentzat berezia izan ohi dela erantzun digu: **"San Pedro eguna egun handia da denentzat. Udala osatzen dugunentzat, noski, abesbatzak kantatzen du Mezan, bandera dantza... Baina herritar guzientzat egun berezia da. Kanpoan bizi direnak etortzen dira eta aspaldiko lagunak eta senideak agurtzeko eta solasteko eguna izanen da, Azkeneko urteetan Trapatán dantza berreskuratu da eta horrek ere izaera berezia ematen dio egunari"**.




goldea
 taldea s.l.l.
 ONGI PASA BESTAK
 Tel: 948 450 269
 e-mail: golidata@rrra@ymail.com
 Pol. Industrial Apaten, 1
 48100 Doneztebe (Nafarroa)

AROZENA OSTATUA
Gosariak eta bazkariak
 Eguzki Eder, 3 DONEZTEBE Tfnoa: 948450443


BLAS
 Liburudenda
 Eskolako materiala
 Egunkariak + Aldizkariak
 Goxopkiak
 948 450 269
 Parrokia 1
 DONEZTEBE

Merkaopari
Elizondo-Bera-Donztebe
 Moderno, egungo, prezio merka

BERATARRA
ERAIKUNTZAK
 Leitzako b. 66 - 8. blokea 2C
 DONEZTEBE
 Jose Ignacio Maritorena Larralde
 670 489 337
ONGI PASA BESTAK


BAR

TITI

Angi pasa bestaki!

Amezña, 7 • 948 450 271 • DONEZTEBE

AMAIUR ALTZARIAK

ESKAINITZA ZABALA eta ESTILO GUZTIAK

Besta ezazu sukaldia erakusketa berria!

Rosa Seminario 13 • DONEZTEBE • T. 948 450 400

RUIZ mobleak

- Haritz, gaztain, eta pinu egurrez egindako mobleak

- Dekorazio artikulua

Merkatarien kanika, 16 - Tfnoa: 948 450110 • DONEZTEBE

REKONSTRUKTIOA

Reif Agrovenco

Pentxak • Orgarriak • Hazak

Ollako eta ollandak astero ortegunetan • Kasiak

Mourges, 20 • 31740 DONEZTEBE

Tfnoa/Faxa: 948 45 18 45 Mugikorra: 610 25 85 85

TABERNA ZAHARRA

Merkatarien k. 11 • DONEZTEBE • Tfnoa: 948 450 007

Gizon eta emakumeentzako amplexuak • Kofinak eta etxerako amplexuak

EDERKI tailerra

PEUGEOT

Peugeot eta Citroën Agente Ofiziala

24 orduz grua zerbitzua

CITROËN Hidraulika "fatigiloen" moldaketa

Leizako bidea • 948 450525 • DONEZTEBE

ordua eskatu

GIZON ETA EMAKUMEEN DAKO

MAITE *Ukapaindegia*

Solarium-a

Mourges Etorbidea, 4 • 948 451 780 • DONEZTEBE

Juanotena

zurgindegia

• Ateak • Eskalera • Leihokak •

Zurgin lanak orokorrean

Leizako bidea, 35 • Tfnoa: 948 450 211 • DONEZTEBE

Mendiburu

aziendak • tratantea

Angi pasa herritako bestaki!

Tfnoak: 608 676 221 948 450 084

DONEZTEBE

Doneztebe auto-askola

A1 - A - B - BTP

C1 - C eta E karnetak ateratzen ahal dira

Besta onak pasa!

948 451 929

Leizako errepidea, 2 behe • DONEZTEBE

HONORIO TABERNA

Merkatarien kanika, 29 • DONEZTEBE

Tfnoa: 948 450 109

GIZONEI ETA EMAKUMEEN DAKO BOUTIQUE

OLAZAR

aroztegia S.L.

- aroztegi metalikoa
- itxiera metalikoak
- aluminio aroztegia
- estruktura metalikoak
- zerrailgintza
- galdaragintza
- ate baskulatuzaileak
- ate automatikoak

Aparan Ind, 1

Tfnoa - Faxa: 948 456 183

Mugikorra: 649 139 365

DONEZTEBE

carniceria harategia

Esarte

ELIZONDO 948 530 128

DONEZTEBE 948 456 132

Kaneroa

LEIZTEA

Pariska, 11 • DONEZTEBE • 948 40 01 02

Jainu Urak, 43 • ELIZONDO • 948 567 307

ONGI PASA BESTAK!

Doneztebeko bestak

ekainak 26 ORTZIRALEA

20:00 SUZIRIA, Herriko Etxetik. Ondotik, karrika-dantza CORCOR txarangak eta txistulariek alaitua. Ohitura den bezala, Doneztebeko ostatueta eta el-karteetan zopak afaltzea. 0:30-3:30 Dantzaldia JALISKO BAND musika-talde-arekin.



ekainak 27 LARUNBATA

09:00 Diana CORCOR txarangak girotua. 11:00 Plater-Tiroa Ehiza Elkarteak antolatua. 11:00 Gorriti eta haren animalien saioa Bear Zana pilotalekuan. 17:00 Nafarroako Bigarren Mailako Aizkora Txapelketaren kanporaketa. 20:00-22:00 Kantaldia JALISKO BAND eta JAIONE OLAZABALEkin 0:30-3:30 Dan-tzaldia JALISKO BAND musika taldearekin.



ANTONIO ARTAZCOZ GOÑI

Merkatariak 8,
Tfona: 948 450 081
DONEZTEBE

- LOTERIA PRIMITIVA
- KINIELAK
- PELUKEROA

RUIZ

okindegia • autozerbitzua

T. 948 450 037 F. 948 450 037 • Nagusia, 15 • DONEZTEBE
E. fernando@donezpan.e.telefonica.net

GONZALO FERNANDEZ LAMANA y A.T., S. CV.

Ingenieru tekniko industrialak

- Bulego teknikoak: proiektuak, obra zuzarmentzak, etab...
- Instalazio elektrikoak
- Etxeko eta industriako elektrizitatea
- Enpresen mantenimendua, etab...

Elizapena, 9 • DONEZTEBE • Tel Fax: 948 450700

ETXE BARNEKOAK:
Bisilloak, kortinak, edredoi nordikoak, mairidireak, toailak, alfonbrak...

- MOSHY almohadak
- Laneko arreak
- Martzeria

1940 urtetik
Lácar Etxea

Sta Luzia karrika, 3 • DONEZTEBE • 948 450 162

Pitti Amaia, 1
DONEZTEBE
Tel. Fax 948 451 380
616 513 491

ESKABAZIOAK S.L.
www.pittieskabazioak.com

eskabadora itikia Herri lanak Hondaketa

garrilatzeako makinaren alokairua

eraipen eta lur-mugimenduak



**ALBAITARITA
ZENTRU
TEKNIKOA**

ONGI PASA BESTAKI

Irma Gendarrats, 18 • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 091



BIXEN ostatua
Beharria eta pintxo onak.

948 450 383 - DONEZTEBE



MARTA ILEAPAINDEGIA
Gizonezko eta emakumeendako
Solarium-a

DONEZTEBE • Merkatariek K, 24 • 948 450 751



NURIA
Zaparrak, makila eta
barretzak

ongi pasa bestaki!

Zaparrak 1-3C DONEZTEBE
947 841 741

ZAPATADENDA
PAPERTEGIA
ESTANKOIA

Gisasa, makila eta
barretzak onak
zabala



Tel eta Faxa: 948 450 289
Parroquia, 17 • DONEZTEBE
calle@ostiz.com.net


APP ongi
informática *pasa bestaki*
.com
DONEZTEBE

Zerbitzu tekniko eta konponketa

Nagusi Kalea 4 • 31740 DONEZTEBE
Tel: 948 451 752 - 609 418 097
zarbo@zarbo.net



Mendaur Motor Leitzako bidea • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 333




Muebles
Telletxea

Rosa Seminario, 12 • DONEZTEBE
T. 948 450 258 • 948 451 811

**ESTILO ETA KOLORE EZBERDINETAN
AUKERA ZABALA**

ongi pasa bestaki!



**AGUSTIN SAN MIGUEL
AZPIROZ**
EGITURA METALIKOAK

- Ateen automatizazioa
- Ate metalikoak, baskulagarrak, lerragarrak, bi onkoak
- Baranda eta hesiak
- Ate sekzionaletan aukera zabala
- Telaturako xafla mota guztiak: panelak, eta telaren imitaziozkoak
- Fabrikatutako txapak

Leitzako errep. 88 • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 224 • 629 328 550



ASEGURUAK



DONEZTEBE
Ongi pasa bestaki!



BERA

Parroquia, 21 • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 266 • Faxa: 948 450 617

Eztegara, 26 • BERA
Tfnoa: 948 625 259 • Faxa: 948 625 264



Gizon eta
emakumeendako
Moda-modako
kolore eta
orrazkera



Rosa Seminario, 17 - DONEZTEBE - Tfnoa: 948 451 961

Doneztebeko bestak

ekainak **28** IGANDEA Gazte Burrenberen eta Ttikien Udalaren Eguna

9:00 Diana CORCOR txarangak girotua. **10:00** Gazte Burrenbak antolatutako jokoak. **11:00** Ttikien Udalari Ongietorria. Horren ondotik, ALKATE tikiak eta haren ZINEGOTZIEK suziria botako dute. **11:30** Meza, TTIKlen Udalbatza buru dela eta Erraldoiek, buruhandiek eta txistulariek lagunduta. Dantza tradizionalak Dantza-taldearen eta Txistularien eskutik. **14:30** Gazte Burrenberen bazkaria. **16:00-20:00** Haurrendako Kart-ak eta puzgarriak Bear Zana pilotalekuan. **17:30** Esku-pilota. **17:30** Ibilbidea herrian barna ELEKTROTUNArekin. **20:00** Ttikien Udalbatzak beren botereak bueltatuko ditu Herriko Etxean; Ttikien Udalbatzako kideei diploma bana emanen zaie egun honen oroigarri gisa. **20:00-22:00** Dantzaldia Santa Luzia Plazan TRIKIDANTZ musika-taldearekin. **22:30** Su artifizialak. **1:00-4:30** Dantzaldia Santa Luzia Plazan TRIKIDANTZ musika-taldearekin.



ekainak **29** ASTELEHENA San Pedro Eguna

9:00 Diana CORCOR Txarangak girotua. **11:00** Done Petri Apostoluaren omeneko Meza Nagusia. Mendi Abesbatzak Eslavaren "Tu es Petrus" eta J.A. Irigoyenen "Agur Doneztebe" abestuko ditu. Bandera-dantza, Trapatana eta berze dantza tradizional batzuk, Dantza-taldearen eta Txistularien eskutik. **11:00** Erraldoiak eta buruhandiak Txistularien bandak lagunduta. **13:30** Aperitiboa Herriko Etxeko behealdean. **17:00** Erremontea Doneztebeko eskolarekin eta herriko profesionalarekin. **20:00-22:00** eta **0:30-3:30** Dantzaldia LAIOTZ musika-taldearekin. **22:30** Zezensuzkoa Bear Zana pilotalekuan.



**Nutrizioa eta dietetika:
Dieta pertsonalizatua**

**Naturista Kontsulta
Masajeak**

orri-pasa Bertek!

Lestizako errep. 3. beheko • Doneztebe
Tel. 948 451 473
kimetzbelardenda@hotmail.com

Amaia

ludil eta estismo zentroa

- Ederlasuna:
 - Medikuntza laser depilazio
 - Medikuntza kontsultak Sierra doktorearekin
- Bepaindegia
- Solaruma
- Lurrindegia
- Oziagarriak

BERRKUNTZA

Amaia z/g • DONEZTEBE • T:948 450 143

JUAN J. PIKABEA

SENARGAIENTZAKO TRAJEA

ZURE NEURRIRA

10 egunez

Neurri haundiak
Galtzak eta bakerak 70 arte
Atorak 56 arte
Jertseak

Amestia z/g • DONEZTEBE • 948 451 670

MIGELENA anaiak

Erlojudenda • Bitxidenda • Sukalde eta bainuko altzariak • Etxetresnak
Sukaldeko tresneria • Zerbitzu teknikoa



Ameztiá 1 eta 5 • DONEZTEBE

T. 948 450 126 • 948 450 925 M.: 677 525 292 • 689 004 841

DONEZTEBEKO Gasolindegia



DESKONTUAK CLUB AVIA bcartelarekin:

%2 gasolio eta gasolinan
%5 dendako produktuetan

Eskaintza zabalagoa (ogia, janariak...)

Eta nola ez, gure betiko zerbitzuak:

- Etxez-etxeko gasolio-zerbitzua
- Auto-garbitzaile automatikoa
- Presio bidezko garbiketa
- Autoaren barneko garbiketa

Leitza E., 49 • DONEZTEBE • T. 948 451 679 F. 948 450 857



SANTESTEBAN TAILERRAK



- Txapa, Mekanika eta elektrizitatea
- Kotxe berriak eta bigarren eskukoak
- Kotxe ia berrietan eskaintza zabala
(6-12hilabeteko kotxeak): Clio, Modus, Kangoo, Megane,
Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace
- ISO 9001 eta ISO 14001 duen tailerra

DONEZTEBE • Leitzako errep.
Tfnoa: 948 450 282

Doneztebeko bestak



ekainak 30 ASTEARTEA

9:00 Diana CORCOR txarangak girotua. 10:00 Txu-txu trena herrian barne eta puzgarriak igerilekuan. 11:00 Mus txapelketa. 14.00 Bazkari herrikoa. 20:00-23:00 MODESTO eta haren akordeoia. 22:00 Txistor-jatea Santa Luzia Plazan. 23:00 BESTEN BUKAERA CORCOR txarangak alaitua.



SALDIAS HARATEGIA
 Bertako haragi freskoetan espezializatua
 Etxeko txistorra

Karrika Nagusia, 19 • 948 450 191 • DONEZTEBE

Juantxo San Miguel
 Iturgintza • Kalefakzioa • gasa

Telefonoak: 948 450 886 • 426 112 415
 Etxagibela, 2 • 31748 DONEZTEBE

Egin behar dituzun lan txiki horientzat, Gremioen koordinazioa

ofiziale gurutak
SERVI-LANen

Alicia T. Erlanz
 SERVI-LAN

Etxagibela, 5 - DONEZTEBE - Tel. 948 456193 Fax. 948 450760

MAYLIN OSTATUA

ongi pasa bestak!

- Bokadiloak
- Pintzoak
- Plater konbinatuak

Panrika 15, DONEZTEBE
 Telefonoa: 948 45 03 96

IRRINTSE

Aurtengo bestak umore ederrean pasatu

OSTATUA

Merkatarien Karrika 28
 948 451826
 DONEZTEBE

ongi pasa bestak!

Clinica Dental

IRURITA RUBIO

ODONTOLOGIA ORTODONTZIA INPLANTEAK

Rx. panoramikoa - periodontzia - kirurgia - endodontzia - protesiak - Hortzen zuritzea
 ODONTOPEDIATRIA - PADI (Haur eta Gazteen Hortzak zaintzeko programa)

Dr. Jose Luis Irurita (kol.240) • Dr. Biotza Rubio (Kol.241) odontologia medikuak

LEITZA • Manuel Lasarte, 7 esk. • 948 610 713

DONEZTEBE • Rosa Seminario, 19 esk. • 948 450 267

APEZTEGIA BERRIA

BURDINDEGIA

Leitzako bidea
DONEZTEBE
948 450 994



ETXETRESNAK



PINTURA



ERREMINTA



BERA

FLASH

Euskarak elkartzan gaituelako UEMA eguna egingen da larunbat honetan

Goizean goizetik ekitaldiak izanen dira

ttipi-ttapa

Euskarak elkartzan gaituelako lelopean urteko besta haundia egiteko Bera aukeratu du UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak. Goizean goizetik izanen dira ekitaldiak. Txistulariak eta txaranga karraketan barna ibiliko dira. 11:15ean herri kirolak izanen dira Altzateko plazan. 11:30ean harri instituzionala egingen da Kultur Etxean eta 13:00etan ekitaldi nagusia Alzateko plazan.

14:30ean zikiro jatea egingen da Alzateko frontoian eta 15:30ean haurren txokoa zabalduko da Ikastolan. Horrekin batera, 17:00etan Pello Añorga ipuin kontalariak *Kontu zahar eta berriak* ipuina kontatuko du eta 18:00etan dantzaldia izanen da Garraxi taldearekin Alzateko plazan.

Brea labea

Maiatzaren 22an, Nafarroako Parlamentuko Ingurugiro batzordea Alkaiagan bisitan izan zen, Orsak Armasa harrobian ezarri nahi duen brea labearen inguruko jakin-garriak ezagutzeko. Parlamentariekin batera, Bera eta Lesakako udal ordezkariak izan ziren, bai-

ta halako labe batentzako lekuri onena ez dela-eta, azalpenak eman zituzten Alkaiaga eta Agerra auzoetako bizi-lagunak ere.

Bizilagunek aipatu zuten, labea etxe atarian daukate eta horrek soinu eta kutsadura arazok sortuko ditu. Lehen etxea 100 metro baino guttiagora dago, baina Alkaiaga, Agerra eta Berako herrigune osoari eragingen lioke. Gaineratu zuten, sarrera eta itteerak «*hagitz eskasak*» di-

tu. Irun aldera joateko leku jarraia gurutzatu behar du eta Iruña aldera, ikusmen eskasa eta abiadura hartzeko lekuri gabe dago. Sartzeko eta ateratzeko, etorkizuneko Bide Berdearen gaitetik pasa beharko lukete kamioiek.

Auzotarrek iazko irailan alegazioak aurkeztu zituzten, baina ez du te erantzunik jaso.

Alzateko bestak

Ekainaren 19an botako den altxaferoarekin ha-

siko dira Alzateko bestak. Hilaren 21era hainbat ekitaldi izanen dira.

Toki Ona Lituania

Hilaren 15, 16 eta 17-an osasuna sustatzen duten ikastetxeen 3. konferentzia egingen da Vilnan (Lituania) eta espainiar estatuko ordezkari gisa, Toki Ona Institutuak hartuko du parte. Bi ikasle (Matixa Oteiza eta Blanca Satrustegi) eta irakasle bat (Iñaki Gonzalez) joanen dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Labiaga Ikastolako ikasleak Estonian

Labiaga ikastolak Comeniusen barne garatzen ari den Euro Traditions proiektua dela eta, Estoniara bidaia egin zuen maiatzaren 27tik 31ra. DBHko hiru ikasle hartu zuten parte -Alaitz Agilar, Patti Etxegarai eta Mikel Esnaolak- bertze ikastetxeetako ikasleekin batera. Türi hirian dago Estoniako eskola eta hau bisitatzeaz gain, hainbat toki ezagutzeko aukera izan zuten. Hurrengo ikasturte hasieran, urri aldera, Italia, Alemania, Turkia eta Estoniako lagunei ongi-etorria egitea egokituko zaie Labiaga ikastolako.

Kirol Eguna irailan

Kirol Batzordeak antolatuta, ekainean egin ohi den Kirol Eguna, irailaren 26an egingen da aurtent.

Hilik Enderako kanalean

Joxe Esteban Telletxea Zalain Zokoko arrantza-le ezaguna hilik topatu zuten maiatzaren 31ko goizean Endara zentralako kanalean. 78 urte zituen eta aski ezaguna zen, izokin arrantzan aritzeagatik eta aunitzetan Bidasoako Lehenbizikoa atera zuelako. Itxura batean, irristatu edo zorabiatu eta kanalera erori zen. Handik urak zentralako arraztelu aldera bultzatu zuen eta bertan agertu zen gorpua.

Martin Goikoetxea Izokinaren kofrade

Martin Goikoetxea argazkilaria Bidasoako Izokin Kofradiako ohorezko kide izatea proposatu du Kofradiako batzordeak. Izendapena igandean, ekainak 14, hartuko du Irunen egingen den ekitaldian.

Areto futbol taldea jokalaria bila

Gure Txokoako areto futbol taldea jokalaria eskasiarekin dabil eta hori dela eta, interesatuak egon daitezkeen guztientzako taldean parte hartzeko deia luzatu du. Nahi duenak telefono honetara deitu beharko du: 650 407736.

dietetika eta elikadura

Iñar Andueza Lanz

52ea, 6 behea

31780 - BERA - NAFARROA

Tfnoa: 948 631 283

E-mail: elikabera@hotmail.com

elika

okane

HARATEGIA / URDAITEGIA

2004. urteko 8. edizioa

Tfno/Fax: 948 630 018

Kantiborderi 12 - BERA

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 - BERA

A person with long, dark, wavy hair and a black and white striped shirt is looking down at a newspaper. In the foreground, there is a framed logo featuring a full moon, a silhouette of a dog, and the text 'ALTZATEKO BESTAK'. The background is a wall covered with various newspaper clippings.

ALTZATEKO BESTAK ⁰⁹

EKAINAK 19, 20 ETA 21

LESAKA

Sanferminetan lau lagunentzako afaria zozketatuko du Zerbitzuen Elkarteak

Ekaineko erosketekin emanen dira boletoak

Aitor AROTZENA

2006an sortu eta gaur egun 33 bazkide ditu Zerbitzuen Elkarteak. Denbora honetan hainbat ekimen egin ditu: berrerabiltzeko poltsak, egutegiak, eskaiparate lehiaketa... Abenduan Olentzero eta Jaiotzen lehiaketan sari berezia eskaini zuten eta martxoan Uda berriko feria. Orain, ekainean, lau lagunentzako afaria zozketatuko dute Sanferminetan. Boletoak elkarteko zerbitzuetan egindako erosketarekin banatu-

ko dira. Abendu aldean, bidaia baten zozketa ere egiteko asmoa dute. Krisi garaian nahiz bertzelan, herriko jendeak erosketak herrian egitea da beraien helburu nagusia. Merkatarien ustez, «lesakarren eta inguruko behar-arak asetzeko haina zerbitzu eskaintzen dira Lesakan eta gure aldetik ahal dugun guziaz egiten dugu konfiantzazko eta kalitateko zerbitzua eskaintzeko». Horretarako, etengabe formazio kursoak egiten dituzte, paketeria, in-



ARGAZKIA: TELLETXEA

Maidar Susperregi, Sandra Legasa, Jasone Telletxea, Naiara Alberro, M^a Jose Capdequi eta Edurne Portuk osatzen dute zuzendaritza batzordea.

formatika... Momentu honetan bizitzen ari garen egoera hau da beraien kezka nagusia: «gero eta gehiago narbaritzen ari da krisia eta

gure helburu garrantzitsuena lanpostua mantentzea da. Ea pixkanaka denok elkarrekin, aurre egiten diogun egoera honi».

Virginia Etxepareren kartelak iragarriko ditu Sanferminak

Programarako azal lehiaketa ere herriko gazteak irabazi du

A.A.

Sanferminak iragarriko dituen kartela Virginia Etxepare Triguerosek egindakoa da. Beraz, beretzat izanen dira lehiaketako irabazleari zuzendutako 500 euroak eta gainera, *Egun gorriak* bere lana argitaratua ikusiko du. Hori gutti balitz, pro-

gramarako portada lehiaketako 500 euroko saria ere berak eskuratu du, *Nora joan da?* lanarekin.

Programaren kontrazalean agertzeko Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako marrazki lehiaketa, berri, Tantirumairu ikastolako 6. mailako Maite Odrio-



ARGAZKIA: WWW.LESACA.NET

Egun gorriak kartela eta *Nora joan da?* programako azala. Biak Virginia Etxeparek eginak.

zola Muxikak irabazi du. Eskola materialean erabiltzeko 300 euroko balea izanen du.

Kartel lehiaketara hiru lan eta azal lehiaketara bederatzi aurkez-

tu dira aurtengoan eta lesakarek, beraien iritzia emateko aukera izan dute, Burniaren Etxean paratu den erakusketan edo Internet bidez botoa emanaz.

FLASH

'Badakizue, egizue!' Sanjuan bezperan

Euskara Batzordeak «euskaraz ongi jakin arren, erdaraz solasteko ohitura duen belaraldiak kontzientzia hartzera zuzenduta» jaialdia antolatu du ekainaren 23an, Sanjuan bezperan, *Badakizue, egizue!* izenburupean. 19:00etan, Albistur karrikako etheen izenak paratuko dira eta arratsean, komentuko atarian Sanjuan sua piztu, kukaña, ostatua, txistorra jatea, txalaparta, bertsoak eta *Eutsi* musika taldearen emanaldia izanen da.

Esti Arozenak Basauriko ipuin erotikoen lehiaketa irabazi

Estitxu Arozenak Euskarabilak antolatutako Basauriko ipuin erotikoen lehiaketa irabazi du, *SMS moreak* lanarekin. Uxue Alberdi, Harkaitz Zubiri eta Edorta Jimenez epaimahakideen arabera, «apaingarririk gabe ongi kontatutako historia» da. 25 lan aurkeztu ziren lehiaketara (11 emakumeek idatziak) eta Estitxuk 500 euro eskuratu ditu.

Bide Hezkuntza

Bide Hezkuntzaren inguruan zenbait tailer antolatu ditu Udalak. Irain eskolan ere, ikasturtean teorikoki ikasitakoari ekainaren 12an adibide praktikoa jarriko diote, Mapfrenen laguntzaz jarritako zirkuituekin.



ETXALAR

Igande honetan ospatuko dute Landagain eskolakoek Haurren Eguna

Arratsaldean Zirika Zirkus taldeak *Ilargian* antzerkia eskainiko du

Joseba eta Nerea

Heldu den igandean, ekainak 14, Haurren Eguna ospatuko dute Landagain eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek. Goizean, meza ondotik, erakusketa paratuko dute frontoian, ikasturte osoan egindako hainbat lanekin; eskulanak, argazki-bildumak, ipuinak... 12:30 aldera XXI. ipuin topaketa egingen dute. Bertoak kantatuz hasiko dira eta ondotik, gela bakoitzeko haur batek bere ipuina irakurriko du jendearen aitzinean. Akabatzeke, saria jasoko dute parte-hartzaile guztiek.

14:00 aldera bazkaria izanen dute, aurten lehenbiziko aldiz, haur, irakasle eta gurasoek elkarrekin. Orain arte Guraso Elkarte arduratzen zen bazkaria antolatu eta zerbitzatzeaz, baina aurten, berrikuntza gisa, catering bat ekarriko dute. 16:00etan Zirika Zirkus

taldeak *Ilargian* ikuskizuna eskainiko du frontoian.

Horretaz aparte, ekainaren 19an akabatu dute eskolako haurrek ikasturtea. Azken urteetako ohiturari segituz, egun berezia antolatuko dute eta hainbat jolasekin agurtuko dute ikasturtea.

Herriko lanetarako langileak

Urtero bezala Udalak hainbat langile kontratatuko ditu Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzei esker uda-udazkenean herriko lanetan aritzeko. Azkeneko urtetan lan horietan aritzen zirenak batez ere ikasten ari ziren gazteak ziren, baina orain bizi dugun egoera ekonomiko konplikatu dela eta, langileen izaera aldatu egin da eta bertez perfil bateko jendea aukeratzea erabaki du Udalak. Hauek izanen dira aurten lanean ariko dire-



ARGAZKIA: ARANTXA DANBORIENA

Talo ikastaroa

Maiatzaren 23an ikastaro berezia antolatu zuen Altxata Kultur Elkarteak. Oraingo gazte aunitzek taloak egiten ez dakitela ikusiz, taloak egiten erakutsi zuten arratsalde batez Larraburua Jubilatu Elkarte hainbat herritarrek. Ikasleak gustura gelditu ziren, batez ere, egindakoa probatzeko aukera izan zutenean. Eta ezin erran ongi ikasi ez zutenik, Gasna Feria Egunean aski talo goxoak egin baitzituzten. Bada etorkizuna Etxalarko talo-egileekin! Argazkian, ikastaroko parte-hartzaile batzuk.



ARGAZKIA: ANA INDABURU

Jaunartzeak

Joan den maiatzaren 31n herriko lau haurrek lehen jaunartzea egin zuten: Irigoienekobordako Martxel Larrazak, Tximistondoako Ainhoa Telletxeak, Sainduneko Eduarda Gomesek eta Bazterretxeako Aritz Irazokik. Meza-elizkizunen ondotik, familiako bazkariarekin ospatu zuten denek egun berezia.

nak: Rosa Arrola (Larrazak), Xabier Berueta (Bekozubikoa) eta Juan Ramon Iturbide (Talpaldako Bordakoa).

- 5 eguneko teorikoa, intentsiboa
- Ordenagailu bidezko sistema berria

... eta hau guztia...

baita **EUSKARAZ** ere!

Albistur 39-H - LESAKA Tel. 948 637 870 - 649 438 183



IGANTZI

Sanjuan Xarreko lehendabiziko besta ekainaren 24an egingen da ohi bezala

Uztaileko igande guztietan izanen da meza

ttipi-ttapa

Tradizio haundiko besta izaten da sasoi ailegatzearekin batera, Sanjuan Xarren egiten dena. Herriko zein kanpoko jende aunitz biltzen dituena. Aurten ere hala izanen da. Sanjuan Egunarekin, ekainak 24, hasiko da urteroko besta. Egun horretan 12:00etan Arantza eta Igantziko apeza den Martin Legarrak meza emanen du eta ondotik herriko dantzariak euren saioa eskainiko dute. Ohiturak agintzen duen bezala, oinak busti edo hiru iturrietatik ura edateko aprobetxatuko dute eguna bildutakoek. Horrez gain, tragoxka bat hartu, pintxoa jan edo erroskilak erosi nahi duenak ere izanen du horretarako aukera. Hortik aitzinera uztaileko

leko igande guztietan izanen da besta eta aldi guztietan 12:00etan izanen da meza, Salvador Madariaga eta Bittor Elizagoien, Arantza eta Arraiozko bertsolariekin.

Neska-mutikoak kazetari Noticias egunkarian

Noticias de Navarra egunkarian Nafarroako ikastetxeentzako tokitxo bat gorde ohi dute noizean behin. Ikasleak izaten dira kazetari eta eurek nahi duten gaia lantzeko aukera izaten dute. Igantziko eskolakoko hiru garren zikloko neska-mutikoek ere aukera aprobetxatu eta horixe egin dute. Ttipi-Ttapan buruz aritu dira eta ekainaren 19ko alean argitaratuko da.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Berrizaungo ur deposito berria martxan

Berrizaun auzoko ur-hornidura sare eta ur deposito berria inauguratu dute dagoeneko. Ur-hornidura sare berria egiteko 423.521 euroko inbertsioa egin da eta Nafarroako Gobernuak %70 eta %80 artean ordaindu du. Berrizaunera ura eramateko 1,8 kilometro tubo sartu da Igantziko deposito berritik eta auzoko ur-hornidura sarea berritzeko 176.947 euroko inbertsioa egin da eta ur deposito berria egiteko, berriz, 246.574 euro erabili dira. Pagocelay eraikuntza enpresak egin ditu lanak eta obren zuzendaritza Santiago Saiz de los Terreros eta Jesus Pachecok bete dute. Herriko depositotik Berrizaungora tuboak sartzeaz gain, desagueak eta bertzelako lanak ere egin dira. Ur-banaketa sarea ere egin da, 18 ur-hartze egin dira, bakoitza bere kontadorearekin, bi sute-aho, bi ureztatze-aho, hiru zatietarako giltza eta desaguea. Berrizaungo ur deposito berriak 102 metro kubiko edukiera dauka, ormigoiarekin egina eta bi baso eta giltzen ganbara duena. Inaugurazio ekitaldia maiatzaren 23an egin zuten, eta han izan ziren Iñaki Goienetxe alkatearen eta udal zinegotziekin batera, Amelia Salanueva Nafarroako Gobernuo Toki Administrazio departamentuko kontseilaria eta Pedro Pegenaute zuzendari nagusia. Udalaren hitzetan, lan hauek lehenbailehen egin beharrekoak ziren, Berrizaunen ez baitzuten ur banaketa sare bateraturik eta bizilagun talde bakoitzak bere depositoa eta bere banaketa sarea zeukan eta urari ez zitzaion tratamendurik ematen. Orain herriko depositotik ekarriko denez, tratamendua hobeetukoa da eta ez da ur murrizketarik izanen.

Igerilekuko soroaleak

Iragarri bezala, larunbat honetan, ekainak 13, hasiko da ige-

rilekuko denboraldi berria, heldu den irailaren 12ra arte zabalik egonen dena. Bitarte horretan soroale lanetan

ariko diren bi lagunak igantziarrak izanen dira: Ibai Retegi Zamorano eta Imanol Goienetxe Iturbide.

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratatutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Emertu aitortpenak
- Elbarnitasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESACA: Sittiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

ARANTZA

Medikuaren etxeko goiko solairuaren erabilerari buruz iritzia bildu nahi du Udalak

Gai honen inguruko idatzia banatu da etxez etxe udal informazioarekin batera

Nerea ALTZURI

Hilabetero bezala, Udaleko berriak azaltzen diren informazio orriak jasotzen ditugu. Tartean, medikuaren etxearen goiko solairuan dagoen etxebizitza alokatzeari buruzko iritzia eskatzen duen idatzia.

Udalak uste du eraikin horrek erabilpen bat merezi duela. Hori dela eta, aipatutako idatzian hainbat aukera proposatu dira eraikin horren erabilgarritasunaren inguruan: etxea errentan ematea; ez ematea eta bertze erabilpen bat ematea. Hiru aukera hauek daude eta herritarrak beretzat egokiena dena hautatu behar du, bere iritzia paperean bertan markatuz eta Herriko Etxean entregatuz, edota zuzenean Herriko Etxera deituz eta

erranez. Horrela, herritarren botoen arabera hartuko da erabakia.

OTSAILEKO UHOLDEAK

Otsaileko uholdeak ez dira atzenduak. Kalte handiak eragin zituzten eta guzien balorazioa egin ondotik, hondamen horiek moldatzeko 62.089,51 euroko kostua izanen du.

Udalak, bere aldetik eta inguruko herriekin elkartuz, Nafarroako Gobernua dirulaguntza lortzeko eskaera egin dio. Duela bi urteko uholdeen kalteak estaltzeko %100eko dirulaguntzak izan ziren (hauteskunde garaia zen, oroitu). Aldi honetarako, badirudi ez dela diru partida berezirik, eta horregatik, Udalak Gubernuko bertze departamentuetara jotzea pentsatu du.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Sanjuan Eguna Zahar Txokon

Aitzineko alean iragarri bezala, Zahar Txokoko bazkideek elkarrekin pasako dute Sanjuan Eguna. Eguerdian Sanjuan Xarren izanen den mezaren ondotik, 13:30ean bazkaria izanen dute egoitzan. Bazkalondoa alaitzeaz, berriaz, Salvador Madariaga eta Bittor Elizagoien bertsolariak eta Lesakako Salvador Madariaga akordeoilaria arduratuko dira. Gogoratu, bazkarian parte hartu nahi duenak ekainaren 12a duela izena emateko azken eguna.

LUR TRUKAKETA

Aitzineko legealdian lur trukaketa bati hasiera eman ziztaion. Azkilarrea auzoko Artxamana alderdiko 4. poligonoko 200 eta 161 lur zatia frontoiaren azpiko aldean dagoen 5. poligonoko 450 lur eremuarekin trukatu dira. Permuta honen helburua, hasiera batean, kirol instalazioak edo zehatzago, igerilekuak egiteko lur egoki bat edukitzea zen.

Momentu honetan, ordea, Udalaren arabera, «igerileku bat egitea ez da inolaz ere bidera-

garria ikusten». Bere hitzetan, «proiektu hori aitzinera eramateko egoera ekonomikoa ez da bateratzen onari herrian, zorpezte maila ikaragarria ekarriko duelako».

Eskolako neska-mutikoak irratiesatari

Joan den asteazketatik ortziratera, Xorroxin Irratiko unitate ibiltaria eskolan egon zen. Goizean 10:00etatik 12:00etara irratsaioak egin zituzten ikasleek: albisteak, errezetak, elkarrizketak, zorian agurrak... eta bertzelako tar-

teak uhineratu zituzten. Ederki pasatu zutelakoan gaude!

Sitgesera bidaiabuztu

Aurten ere oporretan kanpora joateko prestaketa hasiak dira herrian. Sitgesera (Katalunia) joatea proposatu da, abuztuaren 23tik 29ra, eta interesa duenak ekainaren 12a baino lehen izena eman behar du telefono honetara deituz: 948 634030. Bidaiabuztu egiten da eta astebeteko egonaldia lau izarreko hotel batean egiten da.

ITUREN

Sanjuan bezperako besta berreskuratuko da Aurtitzen ekainaren 20an

Apuntatzeko azken eguna
ekainaren 14a baino lehen

Arkaitz MINDEGIA

Ekainaren 20an, aspaldiko ohitura berreskuratuko nahian, Sanjuan bezperako afaria egingen da Aurtitzen.

Garai batean, bazkaria egin ohi zen Beteneko atarian. Aurten, ordea, afaria izanen da eta apuntatu nahi duenak ekainaren 14a baino lehen Aurtizko ostatuan egin beharko du. Aurrerapen gisa 10 euro utzi beharko dira.

Egitaraua oraindik zehaztu gabe baldin badago ere, arratsaldean hainbat ekitaldi izanen dira eta herriko trikitilari eta txistulariek eguna alaituko dute. Unai Apeztegiari ere omenaldi tiki bat egingen zaio.

Eguna behar bezala akitzeko afaldu ondotik dantzaldia izanen da Jose Angel akordeoilariarenekin.

Egoitz Gorosterrazu bertsotan

Egoitz Gorosterrazu finalista izan da Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan, 14 eta 18 urte artekoen kategorian. Maiatzaren 30ean Donezteben finala jokatu zen eta lehiatu ziren hamar bertsolarien artean izan zen iturendarra.

Txangoa Sendavivara

Ekainaren 18an eskolako ikasle eta irakasle guztiak egun ahaztezin bat pasatzeko aukera izanen dute.

Egun guztia Bardeetan dagoen Sendaviva parkean pasako dute. Animaliak, jolas parkea, ikuskizunak eta natura ezagutzeko parada ezin hobea, dudarik gabe.



ARGAZKIAK: BETENEA

1977. urtean Sanjuan bezperako besta ateratako argazkiak.

ZOANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
Audi

MARKA GUZTIAZ KONPONKETA
Benarta, 2 - Alkaisga industrialdea
LESAKA (samera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

Etxeko Ardi Gazta

Lizun
GAZTANDEGIA

Petxenekoborda - SUNBILLA - Tel: 948 450 862

MERTZERIA

Leñe

LENTZERIA

Tel: 948 627 514
Benarta Plaza, 10 - LESAKA

Alberto RETEGI

abokatuak
abokatuak

© 948 630 763 - Aitzate, 17 - BERA

ttipi
ttapa

☎ (0034) 948 635458

SUNBILLA

Udaberriko Biraren barne antzerkia izanen da hilaren 21ean

Pasadas las 4 taldeak *Kontaidazu hamabietan* ikuskizuna eskainiko du frontoian

Jaione OTXANDORENA

Udalaren eskaerari erantzunez, bertze urte batez, Udaberriko Bira antolatu du Nafarroako Gobernuak. Ekainaren 21ean, larunbata, antzerkia izanen da, 12:00etan frontoian. Ikuskizuna eskainiko duen taldearen izena Pasadas las 4 da eta antzezanaren izenburua, berriz, *Kontaidazu hamabietan*.

Besta Berri Eguna

Igande honetan, ekainak 14, ospatuko da Besta Berri Eguna. Igandero bezala, 10:00etan izanen da meza, eta ondotik, prozesioa eginen da. Prozesioan aurten Lehen Jaunartzea egin duten neska-mutikoez eta alkate nahiz zinegotziek hartuko dute parte, gainerako herritarrekin batera.

Orientazio ikastaroa

Ulibeltzak Mendi Taldeak antolatuta, larun-

batean, ekainak 13, orientazio ikastaroa eginen da Ulibeltzak Elkartearen, 16:00etan. Heldu eta gaztetxoentzat irekia dago ikastaroa. Irakaslea Jose Ignacio Murua izanen da eta parte hartu nahi duenak iparrorratza, 30 zentimetroko erregela, lapitza, goma eta zirku-luerdia eraman behar du.

Xorroxin irrtiaren alde

Xorroxin irrtiak antolatu duen *behikak.com* lehiaketarako boletoak Mari Sol janari-dendan eros daitezke bortz euroren truke. Kamisetak ere atera dituzte eta leku berean daude salgai, 10 eurotan.

Agorreta Musika Eskolako kontzertua

Asteazken honetan, ekainak 10, Doneztebeo Agorreta Musika eskolako ikasleak kon-

tzertua eskaintzekoak dira herrian. Eguraldi ona egiten badu, herriko plazan izanen da emanaldia, eta eguraldi txarra eginez gero, joan den urtean egin zen bezala, Ulibeltzak Elkartearen. 17:00etan hasiko da.



ARGAZKIA: J. OTXANDORENA

Joan den urteko Udaberriko Birarekin, Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoak etorri ziren herrira, eta neska-mutikoez momentu ederra pasatu zuten eurekin. Aurten ere seguru gustura geldituko direla.



ARGAZKIA: J. OTXANDORENA

Ludoteka zerbitzua uztailean eta abuztuan

Joan den urtean izan zuen harrera ona ikusita, Guraso Elkarteak uda honetan berriz ere ludoteka zerbitzua martxan jarriko du. Uztailean eta abuztuan izanen da, herriko bestetako astean izan ezik. Aste hori irailerako lehenbiziko astera pasako da. Iaz haurrekin egon ziren bi neska gazteak, Iزارo Altzuri eta Natalia Arretxea, izanen dira berriz ere aurtengo hezitzaileak. Ziur gustura pasako dutela herriko tikiiek, kantuan, paseoan eta era guztietako jarduerak eginez.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

ZJ
Zalain
jatetxea - hostala

14 logela bainu eta TBrekin

Zalain auzoa s/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

Lizardi
Telekomunikazioak

TDT Instalazioak
TB Instalazioak (satelite, lurrekoak)
Instalazio indibidualak eta kolektiboak
Portero automatikoak
Ebeko hari musikala

Tel. 670 415 720
joanilizardi@hotmail.com

Zure etorkizuna, gure



Telekomunikabideetako elektronika



Zurgintza eta altzarigintza



Elektronika industrial mikrogramablea



Eraikuntza eta obra zibila



Proiektu mekanikoen garapena

*Etorkizunerako inbertsiorik hoberena, prestakuntza ona izatea da. **BIDASOA Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak** hori eskaintzen dio bide hau hautatzen duen ikasleari. Profesional kualifikatuak, eta esperientzia egiaztatua; ekipamendurik hoberenak eta teknologiarik aurreratuenak. Lan munduan sarzkeko aukerarik gabe inor gera ez dadin, ikasketak amaituta ikasleen jarraipena egiten du Institutuak.*

HASIERAKO PRESTAKUNTZA

Erdi eta Goi Mailako Prestakuntza-zikloak eskaintzen dira industriaren sektoreko lanbide-arloak: Mekanizazio Ekoizpena, Elektrizitatea-Elektronika, Zurgintza eta Altzarigintza, Eraikuntza eta Obra Zibila. Hizkuntza ereduak: A (gaztelania), D (euskera), B (mistoa) eta hainbat kasutan eleanitza (moduluak ingelesez eta frantsesez). Hiru modalitate daude:

Erregimen arrunta

Bigarren Hezkuntzako (DBH) edo batxilergoko ikasketak bukatu dituzten ikasleen ohiko bidea da, eta goizez eta bi kurtzotan Erdi edo Goi Mailako Zikloa egin nahi dutenena.

Eskaintza Partziala

Bide honek Zikloetako moduluak era independente batez ziurtatzeko aukera ematen du. Orduetgia ikaslearen beharretara egokitzen da, hartara, lana eta bertzelako beharrak ikasketarekin tartekatuta ahal izanzen ditu ikasleak hiru urteko epean dagokion titulazioa eskuratuz.

Goi Mailako Zikloetara Sarbide probak

Eskatzen den titulazioa ez izateagatik zuzenean Goi eta Erdi Mailako Zikloetara sartzea.

tara sartu ezin duten ikasleek, urtero Hezkuntza departamenduak deitzen duen sarbide probarako prestakuntza ikastaroa egiteko aukera dute.

Eleaniztasuna

Ikasturte honetan eleaniztasun eskaintza zabalduta da eta frantsesez edo ingelesez moduluak dituzten zikloak egin daitezke. Fabrikazio mekanikoa (ingeleza) eta arotzeria eta altzarigintza (frantsesa).

LANERAKO PRESTAKUNTZA

Etengabeko prestakuntza-okupazio prestakuntza

Etengabeko ikasketak eta konpetentzia profesionalak eskuratzea lanean ari diren langileentzat nahiz langabetuentzat beharra da. Sistema honen helburua behar horri erantzutea da, lana egiteko eza gutza eta kualifikazio handiagoa emanez, baita promoziorako edo, behar bada, lan munduan txertatzeko.

Modulo Katalogoko ikastaroak

Ikastaro hauetako edukiak Kualifikazio Profesionalen Katalogoko formakuntza kredituei dagokie. Hortaz, ikasteaz gain, titulaziorako eskatzen den ziurtagiria ere eskuratzen da.



Mekanikako produkzioaren programazioa



Instalazio elektroteknikoak



Elizatxo, 10
20303 IRUN (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 666 010
Faxa: 943 615 380
secretaria@fpbidasoa.org



www.fpbidasoa.org

re erronka

Neurrira prestatutako ikastaroak

Prozesu produktiboetarako beharrezkoak diren teknologia edo materiak erakusten dituzten ikastaro bereziak dira, nahiz eta Kualifikazio Katalagoan sarturik ez egon eta langile edo enpresen beharrei erantzuten diete.

GAITASUNEN AINTZAT HARTZEA

Lan esperientziaren homologazioa

Autonomia Erkidegoko ikastetxeen artean, Bidasoa Institutuak lan esperientziaren edo irakaskuntza ez-formalen bidez, ikasleek lortu dituzten gaitasunak aintzat hartuak izan daitezten laguntzen du, eta baldintzak betez gero, Teknikari edo Goi Mailako Teknikariaren titulua lortzeko aukera eskaintzen du.

LAN-MUNDURATZEA, EKINTZAILETZA ETA AUTOENPLEGUA

Lan-Poltsa

Espezializazioa edozein dela ere, ikasketak bukatzen dituzten ikasleen %80a baino gehiagoren enplegua ziurtatzen da. Gainera, ikastetxeak jarraipena ere egiten du eta enpresen eskaeraren arabera egituratutako lan-poltsaren bitartez gure ikasleek lanpostu berriak eskuratzeko edo beren lan egoera hobetzeko aukera dute.

Urratsbat programa

Ekintzaitzaren eta autopenpleguaren kultura sustatzeko esfortzu berezia egiten du Institutuak. Hezkuntza Sailburuordetzaren Urratsbat programari esker, Bidasoa Institutuak ikasketak bukatu dituzten ikasleei enpresa propioak sortzen laguntzen die. 2001ean ekimena abiatu zenetik hamaika enpresa baino gehiago eratu dituzte ikastetxeko ikasleek.

NAZIOARTEKO TRUKAKETAK

Leonardo da Vinci (Erdi Mailakoentzat) eta *Erasmus* (Goi Mailakoentzat) programen bitartez, ikasleek Europar Batasuneko enpresetan praktikak egiteko aukera dute martxotik ekainera bitarte. Urtean bideratzen diren 20 beka ingururekin Bidasoa Institutuko ikasleak aukera du nazioartean barneratu, atzerriko hizkuntza hobetu eta Europako industria ezagutzeko.

Lan-munduratzeko programarekin ikasleen %80a baino gehiago enplegatzen da, batz bestea

INSKRIPZIO EPEA
Ekainaren 12a arte

2009 / 2010 IKASTURTEA
Ziklo-eskaintza osoa goizez

Hizkuntza Eskaintza A, D eta eleanitza *

* **Gaztelera, euskara, ingelera, frantsesa**

GOI MAILA

**FABRIKAZIO MEKANIKOKO
PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA** (Eleanitza)

PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA

**AROTZERIAKO ETA ALTZARIGINTZAKO
PRODUKTUEN GARAPENA** (Eleanitza)

**HIRIGINTZA PROIEKTUEN GARAPENA
ETA TOPOGRAFIA-ERAIKETA**

INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK

PRODUKTU ELEKTRONIKOEN GARAPENA

**TELEKOMUNIKABIDE ETA
INFORMATIKA SISTEMAK**

ERDI MAILA

MEKANIZAZIOA

**NEURRIRA EGINDAKO AROTZERIAREN ETA
ALTZARIEN FABRIKAZIO ETA INSTALAZIOA**
(Eleanitza)

INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK

KONTSUMORAKO EKIPO ELEKTRONIKOAK

MATRIKULA EPEA
Ekainaren 29tik
uztailaren 3ra
biak barne

DONEZTEBE

Euskara teknikari bila dabil Malerrekako Mankomunitatea

Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 19an akituko da

ttipi-ttapa

Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatean euskara teknikari lanetan aritzeko deialdia egin du Mankomunitateak. Euskara teknikariaren borondatezko baja garaia ordezkatzeko deialdia da eta, aldi berean, hautaketa prozesua gainditu dutenen zerrenda osatuko da, mankomunitate horrek erabili ahal izanen duena behin behineko langileen kontrataziorako, hau da, bajak, oporrak edo Bai Euskarari proiektua garatzeko, berteak berte.

EGA titulua edo baliokideaz gain, unibertsitate titulua eta ibilgailuak gidatzeko karneta eskatzen dira, baita ibilgailua izatea ere. Hautatuak Malerrekako Zerbitzu Orokorreko Mankomunitaterako euskara normalizatzeko plan orokor eta sektoriala diseinatu, inplementatu eta jarripena egin beharko du, berte lanen artean.

Eskabideak Mankomunitatean aurkeztu beharko dira ekainaren 19ko 14:00ak baino lehen.

Lehiaketak gehienez 25 puntuko balorazioa izanen du eta oposizioaldiko proba guztien gehienezko balorazioa 75 puntukoa izanen da. Honetan, hiru proba egiten dira, lanpostuan beharrezkoa den euskara gaitasun espezifikoaren neurtzeko, ezagutza teorikoaren neurtzeko eta lanpostuko jardueraren praktikoarekin lotutako gaitasunaren neurtzeko.

Auto triala

Bigarren urtez segidan, 4x4 autoen triala egitea erabaki dute Pitti eskabazioak, Zoansa eta Arincar-Sampi Aragonek. Larunbat honetan, ekainak 13, eginen da. 15:00etan hasita Aparan industrialdean izanen da. Izena eman nahi duenak bi telefono hauetako batera deitu beharko du: 699 454627/616513491, 11:30etik 13:00etara.

Egunari segida emateko gaupasa ere izanen da, Gazte Burrenba Taldeak antolatuta, tartean baita afora ere. Titi osatutan eman beharko da izena.



UTZITAKO ARGAZKIA

Giro ederrean Erreka eguneko ospakizunak

Maitzaren 29an Sanbak eskainitako Mont Blancen igoeraren ikusentzunearekin hasi ziren Erreka elkartearen eguneko ekitaldiak. Ondotik, mus txapelketa jokatu zen eta 40 bikote aritu ziren. Jaba eta Juanjo atera ziren txapeldun eta Maite eta Edurne bigarren. Halere, egun handia larunbata izan zen. Goizean, eskubaloian ttikiaren txanda izan zen eta eguerdian, judo eskolakoek euren erakustaldia eskaini zuten. Eta zer erran, Juan Telletxea aizkolari eta Errekako presidentek emandako erakustaldiaz! Kanako enborra 26 minutuz moztu zuen, plaza bete zuen jendearen txalo zaparrada artean. Arratsaldean eskubaloiko partidak izan ziren. Bestak Santa Luzia Plazan segida izan zuen, 160 lagun bildu baitziren afaltzera. Hemen ere sorpresak izan ziren. Hasteko, Xabi Bañaresek prestatutako ikus-entzunekoa, elkartearen historiari buruzkoa. Hori gutti balitz, orduan agertu ziren Gorka Bidegain eta Iñaki Gurrutxaga, bizikleta gainean Luchon eta Doneztebe arteko 360 kilometroak egin ondotik. Hauek ere txalo zaparrada ederra jaso zuten. Uztailean Elbrusera joanen diren Tomas Sanz eta Sanbak, bertzetik, Errekaren ikurra jaso zuten, Europako gailurrean jar dezaten. Azkenik, Pablo Elizondo Errekako kideari eta urtebetean 35.000 bisita baino gehiago izan dituen elkarte-ko blog arrakastatsuen egileari ere omenalditxo bat eskaini zitzaion.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ibai Meeki eta Errekako talde nagusia sarituak

Nafarroako Eskubaloiko Federazioak 2008-2009 denboraldiari dagozkion sariak banatu zituen maitzaren 22an Iruñean, eta horietako batzuk herrira etorri ziren. Lehen Maila Nazionaleko kirolari onenaren saria, gizonezkoetan, Anaitasuna taldean utzia ari den TID San Antonioko Ibai Meokirentzat izan zen. Dena den, Anaitasunarekin Asobal ligara igotzeko promozioa jokatze-ko kontzentratua zegoenez, Saioa bere arrebak hartu zuen –argazkiaren ezkerrean–. Errekako eskubaloiko talde nagusiak ere saria jaso zuen, bere kategorian bigarren izan ondotik. Juan Telletxea presidentek ezin izan zuen ekitaldira azaldu, eta Ibai Mariezkurrena lehendakariorde eta taldeko kapitainak hartu zuen saria –eskuinean–.



URROTZ

Umerik ez dagoelako aurten ez da Jaunartzerik egin

1999an baino 22 lagun guttiago bizi dira gaur egun Urrotzen

Joseba URROTZ

Seguraski ezta inoiz gertatu izanen, baina aurten ez da umerik izan Jaunartzea egiteko adinarekin. Honek erakusten du nola ari den herri ttiketako biztanlegoa murrizten, Urrotzen behinik behin bai.

Ez aspaldi, duela 27 bat urte inguru, zazpi haur izan ziren Jaunartzean, eta guttienez ere pare bat izanen dira geroztik urtero. Horren haritik, erroldak dioena ere ez da hagitik pozgarria: 191 biztanle gara Urrotzen, horietatik 133 gizasemeak eta 78 emakumeak. Munduan gizaseme baino emakume gehiago dagoela diote, egia ote?

BIZTANLERIA URTEZ URTE

Urtetik urtera poliki poliki beheiti egiten ari da biztanleria. Momentu honetan, erraterako, 1999an baino



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Azken urteotan biztanleriak beheiti egin du herrian.

22 lagun guttiago bizi gara Urrotzen. Hona hemen urtez urte azken hamar urteotako datuak.

URTEA	BIZTANLERIA
1999/01/01	213
2000/01/01	208
2001/01/01	200
2002/01/01	197
2003/01/01	190

2004/01/01	187
2005/01/01	184
2006/01/01	182
2007/01/01	183
2008/01/01	193
2009/01/01	191

Agenda 21 Plana onartua

Udalak maiatzaren 14an egin zuen plenan, Malerrekan urte eta

erdiz landu den Agenda 21etik sortu den Iraunkortasunerako Ekintza Plana onartu zuen. Plan horretan, inguruan ikusi diren beharrak eta hobekuntzak garatzeko 57 ekintza zehaztu dira.

Lauzpabartz urteko epea dago aurreikusia ekintza horietatik batzuk bederen aitzinera ateratzeko.



PERTSONAIA

Andoni ZOZAIA

Espainiako Olinpiararako sailkatua

Matematikari bikain moldatzen dela erakutsi du berriki Andoni Zozaia urroztarrak. Maiatzaren 16an Nafarroako Matematika Olinpiadaren XXIII. edizioa jokatzen Iruñeko Julio Caro Baroja institutuan eta Nafarroa osoko 54 ikastetxetako 162 ikaslelek hartu zuten parte, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailakoak guztiak. Tartean izan zen Urrozko gaztea ere eta bikotekabanan, Leire Elkanoekin batera, txapel-dun atera zen. Nafarroakoa irabazita, ekainaren 24tik 29ra Tenerifen eginen den estatuko mailako txapelketan ariko da Zozaia.

H. LOPEZ

FONTANERIA • ITURGINTZA
Santiago 93, Elizondo
Tel. 948 452 126

Deskontuak
erakusketan ditugun altzari,
txorrota eta bainuko osagarriak

IGERILEKUAK

Igerilekuetarako produktuak eta osagarriak

Produktu berriak:
Bola ekologikoa eta espartzu ekologiko

SALDIAS

Sanjuan bestak ekainaren 19tik 24ra izanen dira

Astelehena atsedeen eguna izanen da

Ostirala 19

20:00etan zopak Herriko Ostatuan. **Gauez**, dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

Larunbata 20

9:00etan argi-soinuak herrian barna herriko trikitilariarekin. **12:00etan** Saldiasko erremontista afizionatuen txapelketa-

ko finalerdiak. **18:00etan** esku pilota partidak, gazteak eta afizionatuak. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

Igandea 21

13:00etan aizkora apustua: Ander Erasun eta Oihan Larretxea, Jon Rekondo eta Xabier Mingegiaren kontra. **18:00-**



ARGAZKIA: PEDRO URRUTIAK UTZITAKOA

Sanjuanetan hutsik egiten ez duen ekitaldia: aizkora apustua.

etan esku pilota partidak, gazteak eta afizionatuak. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin.

Asteartea 23

Arratsaldean ume-entzako jokuak, kart eta gaztelu puzgarriekin.

17:00etan mus txapelketa. **22:00etan** Sanjuan Suak. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia MODESTOarekin.

Asteazkena 24

9:00etan argi-soinuak txistulariekin. **11:00etan** Meza Nagusia, Sanjuan

herriko patroia omezez. **12:00etan** Saldiasko erremontista afizionatuen txapelketako finala. **14:00etan** herri bazkaria Herriko Ostatuan, Agirre eta Etxeberria bertsolariekin. **Arratsaldez** dantzaldia MODESTOarekin.

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK zure laguntza behar du

Proiektu zenbakia: **15.996**
Eginzazu TTIPI-TTAParen alde

Zure laguntza eskertzeko,
motxila eder hau izanen duzu opari.

Eska ezazu TTIPI-TTAParen proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra 2009ko abenduaren 30a baino lehen.

geure bezeroek aukeratutako proiektua **can**

SALDIAS



ARGAZKIA: MARKEL LIZASOAIN

Maria Mitxelenari Landare Elkarateak eman zizkion txapela eta saria.



ARGAZKIA: MARKEL LIZASOAIN

Rallya herrian barna

Euskal Herriko Talo Txapelketaren egun berean, maiatzaren 23an, Nafarroako XIV. RAC Rallya izandu zen. Saldiasen hasi, eta, Orokietako bidean barrena, Lekunberri aldera. Iñigo Alustizak irabazi zuen BMW M3 autoarekin. Josetxo Zapiainek, bigarrenak, ez zuen irabazi, 20 segundoko zigorra eman baitzioten. Horretaz aparte, auto bat irauli egin zen, eta su hartu. Herrikoak haserre dira ikustera joan zirentzat. Bide bazterra zerrri egina utzi baitute (edari latak, plastikozko zakuak, aluminio papera...). Antolatzaileek franko txukun utzi zuten dena, paratutako zintak bildu eta erretako autoa eraman. Baina ikusleentzat ezin halakorik esan.

Nolako eskua, halako taloa

Euskal Herriko Talo Txapelketa irabazi du Maria Mitxelenak

Markel LIZASOAIN

Eta 2009ko Euskal Herriko Talo Txapelketa irabazi du... Maria Mitxelena Urrozek. Zorionak, Maria! Larunbatarekin, hilak 23, egin zuten IX. Talo Eguna,

Erreterian. Egun horrekin batera, talo lehia-keta egiten dute. Eta talorik goxoena Mariak prestatu zuen.

Aurreko egunetan ez zuen gogorik txapelketara joateko, ama eri

baitzuten. Baina, behinik behin, bezperan esan zioten izena emana zeukala, eta joateko eta joateko. Goizean, autoa hartu eta han abiatu zen Endarlatsan barrena. Erreterira ailegatu, eta han ziren Euskal Herriko bazter askotatik talogilerik hoberenak joanak, baita

munduko sukaldari hoberenetako bat ere epaile joana, Juan Mari Arzak. Harekin batean, Igor Zalakain eta Aritz Erzibengoa.

Dena prest zuten taloak egiteko; kondizio berak zituzten denek; osagai berak, irin bera eta su bera. Opila egin, opila jo, erre eta taloa

aurkeztu. Ondotik, epaileek hoxka bat egin, gero bestea; elkarri zerbait ere esan belarrira, eta epaia idatzia gelditu zen. Hura poza Mariak bere ize-na aditu zuenean. Lehendabiziko gauza, etxera deitu: «Ama?», «zer da?», eta «txapel-la irabazi dut!».

edredoi fundak
albomozak
edredoi nordikoak
ohie estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

2009ko udaberriko-udako
kolekzio berria

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

EZKURRA

Lanak akitu eta ia bi hilabetera obra iragartzen duen kartela ermitan

Ekainaren 7ko hauteskundeetan atarian jarri zuten kartela

Fernando ETXEBERRIA

Joan den igandean egitekoak ziren Europako hauteskundeetan atarian, herriko obra baten inguruko kartel haundi bat jarri zuten Gurutze Santuaren ermitan duela aste batzuk. Kartela Zurginearen ondoan, elizaren azpian, pareta zabalduz egin ziren obrei buruzkoa zen.


Kasualitatea da, baina Mariezkurrena enpresak duela bi hilabete inguru akitu zituen lan horiek. Halere, ekainaren 7ko Europako hauteskundeak hurbiltzen ari zirela-eta, Es-

painiako Gobernuaren dirulaguntzarekin egin-dako obra zela gogorarazi nahi izan zuten kartelean.

32.920 euroko aurrekontuarekin egin ziren lanak.

Autobus geltoki berria martxan dago

Autobus geltoki berriko lanak ere akitu dira. Maiatzaren 19an egin zituzten. Markesina berria, batez ere, neska-mutikoen onerako izanen da, egunero 8:30ean Leitza joaten diren gaztetxo-en mesederako.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Europako hauteskundeetan aurretik jarri zuten kartela.

ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Mikel Aingeruaren bisita

Tradizioari segituz, joan den maiatzaren 18an Migel Aingeruaren eta Jesus kapilauaren urteroko bisita jaso zuten Ezkurrak, kanpai eta suziri artean. Urteekin ohitura galduz joan bada ere, hainbat lagun bildu ziren eliz atarian aingeruaren irudiari ongi-egitorria egiteko. Halere, bihar-munean gurtzeko ekitaldian oso jende gutxi bildu zen. Garai batean, egun hori urteko garrantzitsuenetakoa izaten zen. Herritar gehienak Goizuetarekin muga egiten duen tokira joaten ziren Mikel aingeruaren irudiari ongi-etorria



egitera eta ermitarako bidean lehenik eta ondotik elizarakoan laguntzeko. Hurrengo egunean prozesio jendetsua egin ohi zen eta ondotik, herri guztia Eratsunekin muga egiten duen tokiraino joaten zen.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



**Zuri esker
gorenera iristen gara.**

Nafarroako 150.000
etxeren konfiantza
da gure indarra.


gasNatural
Navarra

BERTSOLARITZA

Iruñeko Saioa Alkaiza iruindarrak irabazi du Nafarroako Eskolarteko Bertso Txapelketa

Josu Sanjurjo lesakarra eta biek Euskal Herriko txapelketarako txartela lortu dute

ttipi-ttapa

Nafarroako Bertsozale Elkartek antolatuta, 14 eta 18 urte bitarteko Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finala jokatu zen maiatzaren 30ean Donezteben. Iaz bezala, Saioa Alkaiza iruindarrak jantzi zuen txapela. Saio dotorea egin zuen eta horri esker iaz Iruñean lortutako lehen postua eskuratu zuen berriz. Txapel-dunordea ere iazko berria izan zen, Josu San-

jurjo lesakarra. Biek ordezkaturiko dute Nafarroa ekainaren 20an Altsasun jokaturiko den Euskal Herriko txapelketan.

Doneztebeko saioan 60 lagun elkartu ziren eta haien aurrean etorkizuneko bertsolariak direla erakutsi zuten gazte hauek: Saioa Alkaiza, Irati Majuelo, Haizea Beruete, Patxi Castillo, Ior Tainta, Josu Sanjurjo, Irati Arrieta, Maialen Belarra, Egoitz Gorosterrazu eta Amaia Elizagoien.



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskolarteko bertsolari txapelketako finalistak, 14 eta 18 urte arteko mailan.

Lasao

Lasao Ind.20730 AZPEITIA • T. 943 15 11 82 • F. 943 15 10 98
 informacion@lasao.com • www.lasao.com

%50
 beherapena
 koltxoi ekologikoan.

GOIZUETA

Neurri berriak jarriko ditu martxan Udalak euskararen normalizazio bidean

Udaletxera joatean euskaraz egitea eskatuko zaie herritarrei

Esteban AROTZENA

Euskararen normalizazio planaren barrenean, neurri berriak hartuko ditu Udalak gure hizkuntzaren erabilera indartu eta bultzatzeko helburuarekin. Administrazioaren barreneko eta kanpoko harremanak (herritarrekin eta beste administrazioekin) euskaldunduko omen dira horretarako, euskara ez dakiten herritarren eskubideak errespetatu beti ere.

Plan honen bitartez, herritarrentzako dokumentu argiak eta ulerterrazak bideratuko dira. Euskara kontutan hartuko da gainera, edozein kontratutan, eta euskaraz lan egiteko materialen sorrera bultzatuko da. Gure hizkuntzaren erabilera normalizatzeko herritarren parte-hartzea ezinbestekoa dela dio

Udalak. Beraz, udaletxera jo behar denean —nola idatziz hala ahoz— beti euskaraz egitea eskatuko zaie herritarrei.

Xapo aldizkaria kalean

Xapo herri aldizkariaren 2009ko alea argitaratu berri dute Kultur Taldeak eta Udalaren euskara zerbitzuak. Interes handiko zenbait erreportaje, elkarrizketa, eta beste hainbat gai bitxi betetzen dituzte Xaporen 28. orriak.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Arranbiderako obrak aurrera

Erritmo onean doaz herritik Arranbide bitarteko errepede tartean sei bihurgune zabaltzeko obrak. Belako azpikoa eta Sanjuanburukoa zerrenda horretan daude, ibiltarientzat arrisku handikoak biak.



ARGAZKIA: EIDER ZUGARRAMURDI

Dantzari gaztetxoak Añorgan

Pasa den maiatzaren 23an, Goizuetako dantzari txikiak Añorgara joan ziren Dantzari Txiki egunean emanaldi bat egitera. Bi talde joan ziren Goizuetatik eta denetara, sei bat dantza dantzatu zituzten. Lehenengo, desfile txiki bat egin zuten eta ondoren, Añorgako plazan dantza saio bikaina eskaini zuten. Dantzariak hango etxeetan bazkaldu zuten eta ondotik plazan musika izan zen.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Beste txapel bat Apezetxeak eta Salaberriak

Anton Apezetxea eta lker Salaberriak beste garaipe bat eskuratu dute Irurtzungo txapelketan. Finalean Espinal eta Maita Oberenako bikoteari 18-9 irabazi zioten.

APARAN, S.A.
BIBULALIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta berrizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Behetik
AULKI JASOTZALEAK

Añorgatik 14
Tel: 943 368 781
671 073 688
behetik@behetik.com
www.behetik.com
20018 DONOSTIA



LEITZA

Artisau azokarekin amaitu da XXXI. Kultur Astea

Kultur Elkarteko kideek balorazio «positiboa» egin dute

Asier IMAZ

XXXI. Kultur Astea artisau azokarekin amaitu zen maiatzaren 31n. Antolatzaileen esanetan, jende gehien hurbildu zen eguna izan zen, «zalantzarik gabe». Herriko plazan 50 postu inguru jarri zituzten Euskal Herri osotik gerturatutako artisauek. Hauen artean, berezitasun bezala, Portugaldik etorritako agure bat zegoen: «Leitzan Portugaldik etorritako gazte batzuk bizi dira. Joan den urtean Artisau Azoka ezagutu zuten eta aurten, propio, euren aitona artisaua ekarri dute egurrarekin egindako lanak erakustera».

Oro har «nahiko gustura» gelditu dira Kultur Astearekin antolatzailleak, jendearen parte-hartzearekin: «Jende ezberdin dezente ibili da egun guzti hauetan. Bakoitza bere gaien inguruan mugitu da. Akats txiki batzuk ere egon dira, hausnarketarako baliogarririk eginen zaizkigunak, teknologia kontuak, batik bat. Gazteen mugimendua ere ia baino murriztagoa izan da. Lehen larunbatean Gazte Eune antolatuta zuten eta gazte gutxiago bildu zen. Hala eta guztiz ere, horrelako gauzak antolatzea ziur esperientzia bezala ondo etorriko zaiela».

WWW.LEITZAKULTURA.NET

Aurtengo edizioa web orria inauguratuz hasi zuten Kultur Elkarteko kideek. Egun hauetan bisitari ugari izan ditu webguneak, «batzuketunak eta gomendioak ere idatzi dituzte». Hemendik aurrera, «denborarekin», Kultur Asteako argazkiak bertan zintzilikatzeko asmoa dute elkarteko kideek.

Erleta eskolako haur saridunak

Egin kirola eta gozatu izeneko VII. Marraski eta Ipuin Lehiaketan, Haur Hezkuntzako kategorian, Nafarroko lehen saria Saioa Maritorea bost urteko neska lortu du. Eskolak ere bere saria izango du –aurreneko aldiz jarri dute haur Nafarro mailan lehen saridun bat bertako ikaslea izateagatik. Sari banaketa asteazken honetan egitekoa da, Iruñean.

SARI GEHIAGO

Nafarroako Bertso Paper Lehiaketan ere hainbat sari etorri dira Leitza. Hirugarren zikloan, lehen saria 6. mailako Martxel Intxaustirentzat izan da eta bigarren zikloan, lehen saria laugarren mailako Joanes Illarregirentzat. Pedro Diaz de Ultzurrun deklamazio sariketako irabazlea, berriz, laugarren mailako Sugar taldea izan da.



ARGAZKIAK: ASIER IMAZ

Kultur Asteako ekitaldirik jendetsuena artisau azoka izan zen.



ARGAZKIAK: ASIER IMAZ

Urrutia eta Sukuntza Iparraldeko Joku Torneoan

Abian da IX. Iparraldeko Joku Torneoa eta aldi honetan parte-hartzaileen artean bi leitzar egonen dira: Joxetxo Urrutia eta Migel Angel Sukuntza, harriarekin eta txingekin. Joxetxo Urrutia bi probatan ariko da, harrijasotzen eta txingak eramaten. Migel Angel Sukuntza, berriz, txingekin aterako da. Harri-jasotzaileek 125 kiloko zilindroari, 112,5 kiloko kubikoari eta 100 kiloko bolari ahalik eta jasoaldi gehien eman beharko dizkiete minutu batean. Hiru jardunaldietan jasotako kiloak batuko dira. Txingari dagokionez, bi leitzarrak 40 kiloko txingekin ibiliko dira. Hemen ere hiru jardunaldietako plazen batuketa hartuko da kontuan. Beraz, torneoko irabazleak nortzuk diren hiru jardunaldi jokatu ostean ikusiko da. Lehen saioa joan den asteburuan jokatu zen Burlatan eta bigarrena igande honetan, hilak 14, Etxaurin jokatuko da. Hirugarrena, berriz, Lakuntzan, hilaren 21ean.

ttipi
ttapa
☎ (0034) 948 635458

gaztelu scl
iturgintza
kalafakzioa • saneamendua • gasa
Telefonoa: 948 510 086 • 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

ARESO

Bi langile hartu ditu Udalak udan herriko lanak egiteko

9.949 euroko laguntza hartu da Nafarroako Gobernutik

Juana Mari SAIZAR

Uda garaian, beste urte batez, Udalak bi langile kontratatu ditu lau hilabeterako, eta herriko hainbat lan egiteko. Lan aniztetako langilearekin ari dira eta beste lan batzuen artean, mendiak garbitzea eta herriko pistak txukuntzea dira euren egitekoak. Langile hauek kontratatzerakoan, langabezia egotea zen baldintzetako bat, eta herriko jendeak lehen-tasuna izan du. Beraz, ekainaren 1az geroztik, Txomin Goikoetxea eta Jose Martin Onsalo lanean ari dira.

Aipatu, Udalak 9.949 euroko dirulaguntza jasotzen duela Nafarroako Gobernuaren Enplegu Zer-

bitzutik langabeak kontratatzeke.

Sokotirako saioa larunbatean

Aresoko taldeak aurrera segitzen du Euskadiko Sokotira Txapelketan. 680 kiloko kategorian hirugarren gelditu zen, Gaztedi taldearekin batera eta orain 640 kiloko txapelketan ari da. Maiatzaren 30ean jokatu zuen Laukizen (Bizkaia) lehen jardunaldia eta hartan hirugarren sailkatu zen, Mutrikurekin berdinduta. Bigarren jardunaldia, berriz, larunbat honetan, ekainak 13, Goiherri Martiartun (Erandio, Bizkaia) jokatuko da.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Dantza ikastaroak

Dantzariak ere herriko festak prestatzen hasiak dira. Azken urteetan herriko Ingurutxo berreskuratu egin da, eta gazteak eta nahi duen edonork parte hartzen du, entseguetara azaldu eta gero, noski! Aurten Guraso Elkarteari gogoratu zaio, umetxoek ere parte har dezaketela eta astean bitan entseguak izanen direla. Irakaslea Nerea Azpiroz da, dantzari ohia eta lehen ere lan honetan ibilia, eta 4 eta 14 urteko ume eta gaztetxoei erakutsiko die.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Neska-mutikoen gozamenerako antzerkia

Eguraldi ona lagun zuela, Zirika Zirkus taldeak bere ikuskizuna eskaini zuen maiatzaren 30ean. Herriko umeek, argazkian ikus daitekeen bezala, parte hartu zuten, baita ongi pasa ere.



TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK
zure laguntza behar du



Proiektu zenbakia: **15.996**
Eginzazu TTIPI-TTAPAREN alde

Eska ezazu TTIPI-TTAPAREN proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutzaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPARA 2009ko abenduaren 30a baino lehen.

Zure laguntza eskertzeko, motxila eder hau izanen duzu opari.

BAZTAN

Komisariaren kontrako manifestazioa larunbatean Elizondon

17:00etan abiatuko da Baztanberri plazatik

ttipi-ttapa

Komisariarik ez, herriak ez du nahi lelopean manifestazioa egingen da larunbat honetan, ekainak 13, Elizondon. Nafarroako Gobernua Baztanberri auzoan Foru Poliziaren komisaria berria eraiki nahi du eta proiektua geldiarazteko asmoarekin egin dute deialdia auzotarrek, «*ezaugarri horiek dituen komisaria bat ez delako auzotarrek eskatutako zerbait*».

Manifestazioa 17:00etan abiatuko da Baztanberri plazatik eta ondoko ibilbide hau egingen du: Braulio Iriarte karrikan barna, Santiago Karrikara joan da, handik Francisco Javier Iriarte karrikara, eta Giltxaurdi eta Pedro Axularren barna Foru Pla-

zara ailegatuko da. Han akituko da manifestazioa.

Arrano Beltza legez kanpoko ikurtzat jo dute

Irurritako bestetako eszenatokia eta karpakentzen ari ziren 25 bizilagun identifikatu zituen Guardia Zibilak duela bi aste. Guardia zibilek ikurriña, Arrano Beltza zuen ikurra eta presoan aldeko banderola bat eramanean zituzten, eta Arrano Beltza legez kanpoko ikurra zela argudiatuz bildutakoen kontra Auzitegi Nazionalan ikerketa bat martxan jarri zezakela jakinarazi zuten. Txosten bat bidaliko zutela erranez mehatxatu zituztela ere salatu du Amnistiaren Aldeko Mugimenduak.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Udalak Zahar-etxearen kudeaketa enpresa pribatu baten esku utzi nahi dutela salatu dute langileek

Francisco Javier Iriarte zahar-etxearen gestioa enpresa pribatu baten esku uztekoan dago Udala, eta horrek kezka eragin du langileen artean. Horren inguruan, ekainaren 2an prentsurrekoa eskaini zuen LAB ordezkariak: «*sei hilabetez informazioa eskatzen aritu gara eta joan den maiatzaren 20ra arte ez digute erantzun. Orain, zahar-etxea kudeatzera enpresa pribatu bat sartu nahi dutela badakigu, baina gehiago deus ere ez, eta salatu nahi dugu Udala eta erresidentziako junta aldaketak isilpean egiten ari direla, azalpenik eman gabe*». Horrela azaldu zuten Andone Garde eta Garbiñe Elizalde LABeko ordezkariak. Aipatu zuten, oraingoz, erantzunik gabeko galdera aunitz dituzte: «*zeinen esku geldituko da zahar-etxea? Zergatik oraindik zein den ez dakiten enpresa hau, eta ez bertzetako? Lehiaketarik egin al da? Zergatutako da langileekin? Lan baldintzak mantenduko al dira? Eta zaharrek zer geretutako da? Zenbat kobratuko zaie hemen bizitzen segitzeagatik?*». Udalak langile guzietan segituko dutela erran omen du, baina horrek ez ditu lasaitu langileak, ez baitakite etorkizunean zer gertatuko den. Lan hitzarmen berria zeinekin negoziatu beharko duten ere galdetu zuten: «*juntarekin edo enpresa berriarekin?*» Hilabete bukaeran bilera baterako deitu zituzte, baina enpresa berriko pertsona bat bizpahiru egunez kudeaketa lanean ibili dela azaldu zuten langileek, baita bere garaian zahar-etxe modernoenetariko zena, zaharkitua gelditu dela nabarmendu ere: «*aulki gurpildun batzuk ez dira ateetatik sartzen eta batzutan ordu erdiz esperoan egon behar izaten dugu grua erabiltzeko*». Erresidentziak egin diren azken bi txostenetan gauzak «*beltz*» jarri zituztela nabarmendu zuten langileek, baina euren hitzetan, «*egoera kaxkarra ez da oraingoa*».

**KOMISALDEGIRIK EZ.
HERRIAK EZ DU NAHI!**

ELIZONDON Manifestazioa
Ekainaren 13an • Baztanberri plazan
Arratsaldeko 17:00etan

**ttipi
ttapa**

www.ttipi.net
info@ttipi.net

☎ (0034) 948635458

Eskisaroi
LIBRERIA

Jaime Urrutia
Tfnos: 948 580 013
ELIZONDO

BAZTAN

Almandozko bestak ekainaren 10etik 14ra

Egun haundian herriko dantzariak eta txalapartariak ariko dira meza ondotik

Asteazkena 10

13:00etan ezkil jozea eta altxaferorak. **21:00etan** Baztan-zopak Futbolinen.

Ortzegune 11

Besta Berri Egune

8:00etan aurorak, egusentiko kantak, BIXENTEK alaituta. **12:00etan** Meza Nagusia. **13:00etan** luntxa frontoian. **Ondotik** herriko dantzariak eta txalaparta. **18:00etan** pilota partidak. **20:00etan** tortila lehiaketa. **Ondotik** afaria herritar guziendako, SALABERRRI akordeoilariak alaituta.

Ortzileria 12

Haurren Egune

10:00etan ginkana. **12:00etan** antzerkia. **16:00etatik 20:00etara** gaztelu puzgarriak. **18:00etan** txokolatada. **18:00etan** mus txapelketa. **20:00etan** Mutildantzak. **21:00etan** herri afaria eskola zaharrean, BIXENTEK alaituta. **00:00etan** kontzertuak ZENZERROCK (Doneztebe) eta ERRUGABE (Malerreka) taldeekin. **5:00etan** zinger jatea.

Larubeta, 13

11:00etan mus txapelketako finalerdia eta



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Ez dira oraingo argazkiak. Duela 40 urte baino gehiagoko bestetan ateratakoak dira.

finala. **14:00etan** zikro jatea MATTINEk alaituta. **18:00etan** boneta jaurtiketa pilotalekuan. **00:00etan** gaupasa GAUBELA taldearekin. **5:00etan** zinger jatea.

Igendia, 14

11:00etan gaiteroak herrian barna. **12:00etan** Meza Nagusia eta Lehenengo Jaunartzeak. **17:00etan** Alman doz eta Narbarteren ar-

teko herri kirol desafioa. **18:00etan** Berroeta eta Arantzako neska-mutikoen arteko herri kirolak. **19:00etan** urdaiazpiko eder baten zozketa. **22:00etan** GAIXOANI bestak agurtzeko.



PEDRO GARMENDIA, S.A.

Tel.: 948 580 431 - 948 580 436 - 608 977 685
Faxa: 948 580 973
ELIZONDO (Nafarroa)
garmendia@red.renault.es



KANGOO AUTHENTIQUE 1.6 4X4 95CV

ABS, 2 Airbag
Irabi Motro CD
Abokatu ale lemtak bikotita
Iste sistema jentilaketa
Lax gurpiletako trakzioa
Aire-grota

LAGUNA PRIVILEGE 2.0DCI 150CV

ABS, 8 airbag, Parkinera berru automatikoa, 18"ko gurpiletako lagunak, Pentax metalaketa, B-zona klimatizapalua, Pneumatikoen presio detektapalua, Xenon argiak, Argi partapalua, Bluetooth, Lamako tapetua, Abadura mugatzailea, CABASSE iratia, BCD aurreko kargatzailea, MP3, SAFE, ASR, ESP, GARANTIA: 2011ko urtaria bitartean



MEGANE LUXE-PRIVILEGE 2.0 165CV

Xenon Argiak
16"ko aluminioko lagunak
Pneumatikoen presio detektapalua
Gabeiko turbitasun raibara
BCD kargatzailea iratia
Satek panoramiko elektronikoa
"Etoa ibintza" Renault baxetara
Abadura mugatzailea
Klimatizapalua
GPS nabigatzailea
Lamako tapetua



BAZTAN

Web orri berria eta argazki lehiaketa aurkeztu ditu Bertanek

Argazkiak 2010eko egutegia egiteko erabiliko dira

ttipi-ttapa

www.bertanbaztan.com. Horixe da Bertan merkataria, zerbitzu eta ostalaritza elkartearen Interneteko atari berria. Maiatzaren 26an, Arizkunenean emandako prentsaurrean bi ekimen berri aurkeztu zituen eta horietako bat web orri berria izan zen. Horrekin batera, 2010eko egutegiko argazkiak lortzeko baliagarria izanen den argazki lehiaketa ere bai.

Aurkezpen ekitaldian, Virginia Aleman alkatearekin batera, zuzendaritza batzordeko kideak izan ziren, Mari Jose Alañá presidentea, Ana Goñi bokala eta Jaime Biguria idazkaria.

Interneteko ataria eguneratzen joateko asmoa du elkarteak, Baztanetik kanpora elkarte ezagutarazteko eta merkatuak irekitzeko aukera emanen duelakoan. Etorkizunean komertzio elektronikora eta produktuak on-line saltzera ere ailegatzen ahal dela nabarmendu zuten aurkezpenean.

Web orrira bisitakultzatzeko halako lehiaketatxo bat ere prestatu dute eta ekaineko lau asteetako bakoitzean akatsen bat sartuko dute web

orriko txokoren batean. Akatsa topatzen duenak info@bertanbaztan.com era igorri beharko du eta astero, Bertaneko komertzioetan erosteko eginen den 50 euroko balearen zozketan sartuko da.

Bertan I. Argazki Lehiaketari dagokionez, 2010ean elkarteak aterako duen egutegirako argazkiak lortzea da helburu nagusia eta lehiaketa herrikoia egin nahi dute. Lanak ekainaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira eta sari politak izanen dituzte hiru lehenbikoek: 400, 200 eta 100 euro, elkarteak 75 komertzioetako edozeinetan erosketak egiteko.

Argazkiendako gaia Baztango natura izanen da: paisaiak, errekek, mendiak, basoak, animaliak, landareak... Euskarri digital eta fisikoan aurkeztu beharko dira, eskura asteleheneetik ortziralerara (9:00-14:00) edo honako helbidera bidalita: *Bertan Elkarteak - I. Argazki Lehiaketa, Arizkunenea Kultur Etxea Jaime Urrutia 14 - 31700 ELIZONDO.*

Argazki guztiak web-orrian eta abuztuan eginen den Bertan Egutegiko erakusketan ikusgai izanen dira.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Web orriaren aurkezpenean, Bertan elkarteak kideak eta alkatea izan ziren.



ARGAZKIA: RAFA MITXELENA

BKTko alebinak hirugarren Loiolako txapelketan

Baztango Kirol Taldean ari diren alebin neskek hirugarren postu bat eskuratu dute berriki. Iruñeko Loiolan Euskal Herriko zortzi talde lehiatu ziren maiatzaren 30ean eta 31n eta Totu Iturzaetaren aginduetara ari diren baztandarrek hirugarren gelditu ziren. Argazkian hirugarren eta laugarren postuak erabakitze jokatu zuten partidaren aurkari izan zituztenekin ageri dira.



ARGAZKIA: BEGOÑA AGERREBERE

Erratzuko emakumeak San Isidro Egunean

Hutsik egin gabe, aurten ere San Isidro Eguna ospatzeko San Pedro Xarko ermitan bildu ziren Erratzuko emakumeak meza entzuteko.

POTTOKI
Bartzaberr Plaza, 3 - beheak
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfnoa: 948 591 983
info@pottoki.com
www.pottoki.com

Asistehenetik larunbatara:
8:30 - 13:30
18:30 - 20:00

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Barrietz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONÓZ · MUGAIRI



SORGINAREN EGUNA 2009
 FERIA
 HITZALDIAK
 IRUSKIZUNAK
 ARTZERKIA

DÍA DE LA BRUJA 2009
 FERIA
 CHARLAS
 ESPECTÁCULOS
 TEATRO

LA JOURNÉE DE LA SORCIÈRE 2009
 FOIRE
 CONFÉRENCES
 SPECTACLES
 THÉÂTRE

Organizazioa: www.nafarroa.net | www.nareti.es

Prezio bereziak
 lekuetara sartzeko
 Precios especiales
 para la entrada
 a las cuevas.
 Prix spéciaux pour
 l'entrée dans les
 grottes

Laguntzaileak
 Colaboran:
 Collaborateurs:



NAFARROAKO
RURAL KUTXA
 CAJA RURAL DE NAVARRA



the
 graphic
 committee



cederma garaluz

2012 ZUREKIN
 BAGOAZ AURRERA



Nafarroako
 Gobernua



ZUGARRAMURDI

Dena prest dago ekainaren 20ko bigarren Sorginaren Egunerako

11:00etatik aitzinera Erdi Aroko azoka, hitzaldiak, ikuskizunak, antzerkiak... izanen dira

Margari eta Koro

Aitzineko alean iragarri bezala, ekainaren 20an, larunbat honetan zortzi ospatuko da Sorginaren Egunaren bigarren edizioa. Egun osoko ekitaldiak antolatatu dituzte.

Hauxe izanen da egitaraua:

Egun guzian herriko karriketan **Erdi Aroko azoka** eta **sorginen postuak**. Salmenta eta kontsultarako postuak egonen dira.

11:00etan **karrikako ikuskizuna**, Tusuri taldearekin.

12:00etan Sylvie Imberdisen **hitzaldia** frantsesez.

Eguerdiaren **antzerkia** plazan.

16:00etan Jose Antonio Azpiatzuren **hitzaldia** euskaraz.

17:00etan **ipuin kontalaria**.

18:00etan Itziar Salegiren **hitzaldia** gaztelerez.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Aterpe berriak Sorginaren Egunean zabalduko ditu atepak.

19:30ean Sant Feliu de Serrako (Katalunia) **sorgin dantza**.

20:00etan itxierako **ikuskizuna**.

20:30ean **eskertza erri-tuala** leizean, Sua eta urari eskertzeko erri-tuala.

21:30ean **Akelarre** antzerkia leizean.

Hitzaldietan landuko diren gaiak hauek izanen dira:

astrologia eta sorginkeriaz ariko dira frantsesez eskainiko den hitzaldian; XVI-XVII. mendeetako emakumez euskaraz; eta *atzo, gaur eta biharko sendabelarrak. Naturopatia magikatik, naturopatia zientifikora* gaztelerez.

Bertzalde, aipatzen da, egun horretan leizerako sarrera mer-

keagoa izanen dela.

GRAXIANA, SORGINEN ATERPEA

Sorginaren Eguna-ekin bat eginez, egun horretan Zugarramurdi aterpe berria irekiko da. *Graxiana, Sorginen Aterpea* du izena eta berri-berria den eraikina da. Hainbat zerbitzu eskainiko ditu eta bi, lau, sei, zortzi eta 10 oha-

tzeko logelak izanen dira. Denetara 76 laguntzako tokia izanen du. Eraikuntzak WIFI zerbitzua ere jarria du. Gainera, ostatu eta jantetxea izanen da, eta haurrentzako parke bat ere izanen du. Aipatzen da kanpoko aldean sendabelarren baratzea izanen duela, baita animalia txikien eremu bat ere, ahate, oilo eta lapinekin. Horretaz gain, tailer eta aktibitateak eskainiko dira.

Xorroxin irratia-aren alde

Xorroxin irratia-ri laguntzeko kanpaina bat martxan dagoela gehienok jakinen duzue. Laguntzeko bi modu dau- de: bata 10 eurotan salgai dagoen atorra eros- ta da, eta bertzea zoz- ketaren batean parte har- tzeko txartela erostea.

Bai bata eta baita ber- tzea ere, Urdazubin Anaxtaxin, eta Zuga- rramurdi Marixanen erosten ahal dituzue.

ireki berria

Alai oinetakoak

Santiago, 47 - Elizondo - tel. 948 452 457

BURKAITZEA
- ostatu
- erretegia

Zugarramurdiako bidua, 3 km
948 599 280 - URDAZUBI

SOULE
hileta artea
Telef. 948 452 457
948 452 457
ARIZUM

URDAZUBI



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Agintari politikoak museo berriaren inaugurazio egunean.

Santiago Bideari eta komentuari buruzko museoa zabaldu dute monasterioan

Ekainaren 4an inauguratu zuten

tipi-ttapa

Zabalik dago Salbatore monasterioko museo berria, Santiago Bideak inguruan egiten duen ibilbidearen eta komentuariaren historia jasotzen dituen, hain zuzen. Ekainaren 4an inauguratu zuten, hainbat ordezkari politiko aitzinean zirela. Santiago Villares alkatearekin eta bertze zinegotzietekin batera, Miguel Sanz Nafarroako Gobernuako presidentea eta Juan Ramon Corpas Kultura eta Turismo Kontseilariak parte hartu zuten, eta Baztango udal ordezkariak, Urdazubi eta Baztango Santiago Bideko Lagunen Elkarteak den Jose Fernandez D'Arlasek eta

Iruñeko Artzapezikutzaren ize-nean Javier Aizpuruk, baita Juan Zabala apaizak ere.

Museoa egiterakoan hainbat izan dira dirulaguntza eman duten entitateak: Udalak, Santiago Bideko Lagunen Elkarteak, Nafarroako Kutxaren zuk aukeratu, *zuk erabaki proiektua* eta Nafarroako Gobernua. 2007az geroztik Kultura eta Turismo Departamentuak hainbat laguntza eman ditu monasterioan egin diren hainbat proiektuetarako: 2007an 50.000 euro eman zituen tokia egokitzeko; 2008an 67.999,34 euro obra zibilaren proiektua egiteko eta aurtun 57.320 museoak egiteko.



FCG 10 URTE
Nafarroako Merkataria
1999 Elkartea 2009

BIDERAGARRIAK DIREN SALTOKIEN TRASPASATZE-POLTSA

Pertsona saiatua zara?
Funtzionamenduan dagoen saltoki bat zure esku hartu nahi duzu?
Orain dituzun salmenta puntuez gain beste bat ere izan nahi duzu?
Orain duzun saltokia beste baten esku utzi nahi duzu?

Interesatzen zaizu
Anonimotasun osoaren garantiarekin

Informa zaitez 948 23 99 08
compras@comercionavarra.com - www.fcmerciosn.com

Finantziatzen du:
2012 ZUREKIN BAGOAZ AURRERA | Nafarroako Gobernua

SARA

Sara eta Azkaingo errugbi eskolakoek emaitza onak izan dituzte Hernanin

Xitoen mailan garaile izan dira Hernaniko errugbi eskolen txapelketan

Xan HARRIAGUE

Iaz bezala Sarako Izarra eta Azkaingo Elgarrekin errugbi elkarrean artean osatutako taldeek Hernaniko (Gipuzkoa) errugbi eskolen txapelketan parte hartu dute, eta ez dira etxera esku hutsik itzuli. Xitoen mailan txapelketa irabazi dute, finalean 15 eta 0 gailenduz Hazparneren kontra. Xito tikien mailan garaipena ez zuten izan, baina azkenean finalean galdu zuten Donibane Lohizunerren kontra 15 eta 0.

Maiatzaren 31n jokatu zen txapelketa, Landare zelaian. 15 taldek parte hartu zuten eta orotara 220 bat haurrek. Aipatutako taldeez gain, han izan ziren, Hernaniko taldea bera,



Herriko errugbi taldeko jokalariek eta arduradunak Korsikan.

ARGAZKIA: ESTEBAN BARNEIX

Donostiako Bera Bera eta Bartzelonako BUC ere bai.

Bertzalde, errugbi taldeak bere biltzar nagusia egingen du ortziral arratsaldean, 20:00-etan Animainean. Aur-

tengo denboraldia Korsikara bidaia eginez bukatu dute, Bastiako taldean aritu baitira denboraldi huntan herriko bi jokalarik, Mathieu Albistur eta Sebastien Lopez. Aukera baliatu du-

te anaitasunezko azken partida bat egiteko.

Eskolako besta

Seroreen eskolako haurrek ekainaren 20an egingen dute urte

bukaerako besta. Azken hilabete hauetan prestatzen aritu diren ikuskizuna eskainiko dute, eta eguna giro ederrean pasatzeko aukera izanen da.

Hitzaldia Ortillopitzen

Herriko eta, oro har, gure eskualdeko hainbat gizon eta emazteren hilketa eragin zuen sorginkeriaren auziaren 500. urteurrena izaki, hainbat hitzaldi eskaintzen ari dira Lapurdin. Horiatariko bat gure herrian izanen da, ekainaren 20an, Ortillopitzen 21:00etatik aitzinera. Aizpea Leizola Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea mugaz ariko da *Mugak noiztik eta nola?* izenburu duen hitzaldian.

2 SARRERA
Artic izotz jauregia
5767
BIDALI ttipi saskia

MONTXO ОСТАТВА
 Dantxarinetatik 2 km-tara
 ТДВЛКО-ДЕНДЛ
 АНЗАЛН-БОРДЛ • ВРДЛЗУВЛ
 Egunero irekia 10:30etik 02:30era

ANZABAL
 AGENTZIA

- Zurich Aseguruen Auzo, elveko, itzpi eta borta aseguruak
- Lan aholkularitza Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala Errenta Deklarazioa, IRZa...
- Inmobiliaria
- Baserri, borta, pisu, etab... salmenta eta alokamen
- Gestoria

Bilgaituen transferentziak, gutuzeko karmetaren berritza eta etxeen gisako gestioak

Santiago, 15 - ELIZONDO
 Tfnoa: 948 580 804
 anzabal@anzabal.com

SENPERE

Burdin bide berririk ez da eginen Senpereko oihanean barna Alliot Marieren arabera

Polemika eragin du erabakiak

Franck DOLOSOR

Michèle Alliot Marie Frantziako barne ministroak eta Lapurdiko hautetsiak polemika handia sortu du, eta aspaldiko partez ekologistak alde ditu. Abiada handiko treinarren linea berriarren inguruko ikerketak eta bilkurak bertan behera uztea galdetu du berriki Alliot Mariek.

Gan den otsailean jakin zela burdin bide berria egiteko bertz kilometrako zabalera duen iraganbide bat marraztu zen Baiona eta Hendaia artean, Senpere iparraldeko eremuetan barna. Senpereko auzapezake-xu agertu zen orduan nahiz eta uste baino eremu gutiago hunkituak zirela erran zuen. Proiektu horrek haserre gorria piztu zuen Lapurdi kostalde osoan.

Orain, Europako bozen kanpainaren kariatarat, Alliot Mariek jakinarazi du abiada handiko treina gaur egungo

lineatik pasako dela Lapurdiko hiri nagusitik Gipuzkoako mugaraino, eta ez dela burdin bide berririk eginen. Alain Rousset Akitaniako president sozialistak ez du batere begi onez ikusten Alliot Mariek erran duena. Rousset-k dio linea osoki ez bada egiten Gipuzkoaraino Europak ez duela dirulaguntzarik emanen Tours eta Bordele arteko treinbide berria egiteko. Haserrea Alliot Marieren familian berean ere hedatu da, Alain Juppé Bordeleko auzapeza eta Alain Lamassoure Iparraldeko eurodiputatu eskuindarrak ez direlako batere akort erabaki berriekin eta egiteko moldeekin. Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban aitzinera doazi abiada handiko treinarren lanak. Eusko Jaurilaritza eta Espainiako Gobernamentua kexu dira Alliot Marieren erranetatik. Azalpenak ematea eta bilkura egitea galde-



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Aintzirako besta arrakastatsuak

200 lagun baino gehiago bildu ziren aintzirako besten hirugarren ekitaldian. Ohiturari jarraikiz, lakuko bestak maiatzeko azken asteburuan ospatu ziren. Aurten, hiru berrikuntza izan dira: petanka zoingehiagoka, otruntza gauaz egin zela eta pittika jateko partez xerri tiki errea zerbitzatu zela. Egun osoan eta gauaren parte batean, umore ona nagusitu zen aintzira inguruan. Lehen besta hauek ospaturik, orain herriko eta Amotzeko bestak etorriko dira laster. Senpereko bestetan, ospe handiko hiru bertsulari gazte entzuten ahalko dira: Amets eta Maialen Arzallus Hendaiaiko anaia arrebak eta Sustrai Colina urruñarra. Matxin bertsulari senperrak kontent litzateke gazteak bertsutan entzutea Senperen, eta hauen artean Amets Iparraldeko txapel-duna! Amotzeko bestetan ere euskal giroaz goxatzen ahalko da, bertzeak bertze, bigarren aldikotz ahate jokoa eginen baitute inguruetako gazteek.

ginen diote Frantziako Gobernuari. Espainiak lotura zuzena eta lasterra nahi du Europarekin.

Doinuak nagusi herrian

Musikaren bestaren ka-

rietarat, doinuak nagusituko dira ondoko egune-tan Senpereko karriket-an. Erearoaren 20an, 21:30ean, klika, Magali Zubillaga kantaria, Jean Michel Bereau musikaria eta Maddalena Luzzi

eskusoinulari italiarra entzuten ahalko dira, bertzeak bertze. Biharamu-nean, 16:00etan, Senperen Kantuz herritar batzuek osatzen duten kantari taldeak alaituko ditu bazterrak.

Martiko
Poi Zabaen, 4/1
31790 Berra, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com
